

2021eko uztaila | 216. zenbakia

ai!kor!

txoriez aldikaria



Zirko
Txosko

Estibaliz Jorge Lantegi Batua Santi Matxete






Bertoko 2021-2022 ikasturtea

Musika-tresnak eta kultura

Zelan oporrak?

Hau dozu matrikula eguna. Ondo apuntatu!



Irailaren 9a

...

19:30



Euskal kantak, trikitixa, panderoa,
dultzaina, alboka, txalaparta...



2021



689 24 68 44



bertokozamudio@gmail.com



[@bertoko_zamudio](https://www.instagram.com/bertoko_zamudio)



Zamudio

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Itxialdia
-  12 Estibaliz Jorge, desgaitasuna eta legea
-  14 Gaztea eta... Ainara Erezuma Zubiaur, beganoa
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Lantegi Batuak
-  20 Zirko Txosko
-  25 Gure iragarleak
-  26 Institutua
-  28 Santi Matxete y los Pielas Rojas
-  30 Aiora Gerekiz, amazona
-  32 Zu argazkilari
-  33 Emaus Gizarte Fundazioa
-  34 Herbarioa
-  35 Aikorrizketa
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa



18 Lantegi Batuak



28 Santi Matxete y los Pielas Rojas



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorie-
rriko Euskara Elkarleen Federazioa
(Lagatzu, Zorriketan, Arrekikili,
Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Jon Ander Rola, Itsasne Zubiri, Txiribita,
Alaitz Fernandez, Emauseko PAI Bitartean zerbitzua, Gaizka Peñafiel eta
Katalin Alcuturri.

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Iratxe Pirla

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Oroimen historikoa

Orain urte asko atzerrian nengoela lagun on bat egin nuen, estatu batuarra bera, pertsona interesgarria, familia bateko alaba adoptatua, ama biologikoaren bila zebilena. Kontua zen bere ama erreserbetan baztertua bizi diren komunitateren bateko kidea zela. Lagun horrek Europaren historian interes handia zuen eta bereziki Euskal Herriko historian. Beti esaten zidan inbidia zigula guk gure historia gordeta geneukalako. Eurek ezer ez. Europatik joandakoek, artean euskaldunak, suntsitu zuten eurena. Bere oroimen historikoa oso laburra zela esaten zidan. Horrek identitate arazoa sortzen zion, sustrai gabeko pertsona balitz bezala. Nik esaten nion gure Herriak baduela bere historia, baina gure belaunaldikook eskolan ezer gutxi ikasi dugula Euskal Herriaren historiaren gainean, familia gehienetan isiltasuna izan dela ohiko jarrera eta kalean kontu handiz ibili beharra genuela. Geroago beste bide batzuetatik jakin dugula gureari buruz.

Aspaldian oroimen historikoa errekuperatzeko han eta hemen ahaleginetan dabilta eta gabiltza. Oraindik kezka sortzen didan gaia da. Oroimen histori-

koan kontakizun bakarra egitearen alde susmatzen ditut batzuk. Berrito ere agintean daudenen kontaketa nagusituko denaren arriskua ikusten dut, beste batzuek esateko dutena baztertuz.

Historia egin duten guztien ahotsak entzuteko bidea zabalik utzi behar da, historia bizitzeko, ulertzeko edo interpretatzeko ikuspegi desberdinak egon daitezkeelako. Ahots guztiak ez badira entzuten, isiltzen diren pertsonen esku-bideak urratu egingo dira. Historiak bi aspektu dituelako: batetik, objektibotasuna, besteak beste, datuak eta datak; bestetik: subjektibotasuna. Azken horrek batzen du banakakoaren eta kolektiboaren emozioak, bizipenak, sufrimenduak eta abar. Denak batuta egin behar dira historiaren kontakizunak, ezagutza eta oroimen osoagoa egin dezagun.

Beraz, oroimen historikoa garrantzitsua da iraganarekiko lotura ez galtzeko, baita etorkizunari begiratzeko ere eta erreferentziak izateko Herria eta herritarren geroa eraikiz joateko, merezi duten aspektuetan sakontzeko eta akatsetatik ikasteko edota baztertu behar direnak albo batean uzteko. Bestalde, mundu globalizatu honek eragin duen uniformi-



ANA MEZO BASARAS
Irakasle erretiratua

zazioari aurre egiteko, Herri moduan bizi-irauteko, oroimen historikoa ezagutza behar dugu, eta hori gordeta izan.

Azken urteetan testigantza batzuk galdu baditugu ere, oraindik oroimen historikoa osatuz joateko aukerak daude. Egin dezagun lan zuzena eta ahots guztiak entzun ahal izateko moduak zabaldu, hala ez zaigu gertatuko lagun estatatu batuarrari gertatutakoa. Animo eta aurrera.

Kulturaren txanda, orain

Esatzen dute dantza egiten duen herriak bizirik dirauela, baina nik esango nuke herri batek kultura sendoa behar duela sendo irauteko. Eta gure kulturak urte luzea darama ilunpean, bere proiektuak alde batera utziz, bere sormena eta trebeziak plazaratu ezinik.

Kulturatik bizi direnei zor diegu bai erakundeek, bai elkarteek eta gizabanakook urte honetan kulturen gastatu gabeko sosak beraiengan inbertitzea, eta ez errotondetan. Adierazi nahi digutena beso zabalik eta errespetuz hartu behar dugu. Eta errespetuari buruz, bertso saio batean gertatutako pasadizo bat kontatuko dut:



JON ANDER ROLA
Irakaslea

Bertso saiora bertaratutako batek aurkezleari bi aldiz moztu zion, bere us-tez, erabilitako bi egitura –bertaratu eta bi talo– ez zirelako bizkaieraz behar bezain jatorrak. Ez zuen kontuan izan aurkezlearen sor zitekeen segurtasun falta edo urduritasuna, ezta bizkaiera menderatzen zuen edo bizkaieraz ekiteko gogorik zuen (ziur nago gaztelaniaz izanez gero ez zela gertatuko beste dialekto batean ekiteagatik).

Hainbeste urtean gure hizkuntzan beldur barik hitz egitera jendea animatzen ibili ondoren, bakarrik falta zaigu orain txikikeriengatik kikiltzen hastea.

Mila esker, Etxahun, handia zara.

Loiuk 500 euro emango du familiako, kontziliazioa errazten laguntzeko



luz Loiuko Udalak familia-kontziliaziorako plana ipini zuen martxan eta, Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean jakinari duenez, loiuztarrak aurten ere baliatu ahalko dira planaz. Helburua da udan lana eta familia bateragarri egiten laguntzea. Horretarako, 500 euroko dirulaguntza emango diete 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatu behar duten familia bakoitzari. Eskabideak irailaren 15etik aurrera aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu: Loiu 2021eko apirilaren 1a baino lehenagotik erroldatuta egotea, bere ardurapean 14 urtetik beherako seme-alabak izatea eta lanean ibiltzea. Guraso bakarreko familia bada, eskatzaileak

besteren konturako langilea izan behar du, eta aurrez aurreko lana edo lan erdi-presentziala egin. Azken kasu horretan, lanaldi osoko kontratua izan behar du, eta aurrez aurreko lana gutxienez lanaldi erdikoan egin. Kontratua lanaldi erdikoan izanez gero, aurrez aurrekoa izan behar da.

Familia berean adingabearen zaintza duten pertsona bi bizi badira, horietako batek lanaldi osoko kontratua izan behar du, eta besteak, lanaldi erdiko edo luzeagokoa. Gurasoetako bat langile autonomoa bada, besteak lanaldi osoko kontratua izan beharko du.

Azkenik, seme-alabak zaintzeko kontratatzen den pertsonari gutxienez 30 eguneko kontratua egin beharko dio eskatzaileak.

Zamudioko langabeak kontratatzeko dirulaguntzak

Zamudioko langabeak kontratatzeko deialdia onartu du Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak. Deialdiak zortzi dirulaguntza ditu, bakoitza 2.000 eurokoa, eta kontratuak mugagabeak edo aldi baterakoak izan behar dute, gutxienez lau hilabeteak eta lanaldi osokoak. Bestalde, kontratatutakoek Zamudion erroldatuta izan behar dute, langabezia eta Lanbiden izena emanda. Kontratazioak 2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte izan behar dira. Eskararak 2021eko urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke Mankomunitatean bertan. Informazio gehiagorako, EGAZ Txorierrira jo daiteke.



25 YEARS ANNIVERSARY

Jansen Ambassador oheak 25 urte bete ditu. Ezagutu.


SUIT DELUX

Ohea aldatzen dizugu,
bizitza hobetzen dizugu

BILBO Ledesma 32 | Tf. 944 145 875

DERIO Seminarioa | Tf. 944 545 147

LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

www.suitdelux.com

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75



Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea



ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak


Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Alaia fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua




Taller, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Lezaman babestutako etxebizitzak bultzatzeko eskatu dute



Etorkizuna Eraikitzen etxebizitzaren aldeko plataforma da eta hura osatzen dute Lezamako Gazte Asanbladak, Moreak eta Lezama Bizirik elkarteek eta hainbat gazte-koadrilatako kideek. Plataformak etxebizitzari buruzko proposamena egin dio Lezamako Udalari albait arinen hirigintza plana egin dezan. Plataformak eskatu duenez, jabetzarako edo alokairurako etxebizitzak sartu behar dira plan horren baitan, eta babestutako etxebizitzak bultzatu. Horretarako, ezinbesteko jo du legeak 3.000 biztanleko herrietarako

eskatzen dituen gutxieneko estandarrak erreferentziatzen hartzea: hiri-lurzoruan, % 40 izatea etxebizitza babestua, eta gutxienez % 20, babes ofizialeko etxebizitza; lurzoru urbanizagarrian edo urbanizaezinean, % 75 izatea etxebizitza babestua, eta gutxienez % 55 babes ofizialeko etxebizitza. Plataformak ez du etxebizitza-kopuru zehatzik proposatu; hala ere, "badakigu 1988ko arau subsidiarioetatik abiatuta garatu daitekeen planak 100 etxebizitza baino gehiago aurrekusi ditzakeela eta, gure ustez, hori kopuru interesgarria da Lezamako egungo etxebizitza-merkatuaren baldintzak hobetzeko".

Plataformaren esanetan, Lezaman ez dago etxebizitza babesturik ez jabetzan, ez alokairuan. "Azken bi hamarkadetan etxebizitza libreak baino ez dira sustatu, eta horietako asko dentsitate txikikoak izan dira, baita familia bakarreko etxebizitzak edo txaletak ere. Ondorioz, hiri-lurzoruaren okupazioak ez du ekarri etxebizitzaren eskaintza asko handitzea eta oso prezio handiak egon dira. Gaur egungo etxebizitzaren eskaintza urria da, eta oso garestia. Alokairuko etxebizitzaren eskaintza oso txikia da, eta Etxebideku deitutako programei dagokienez, bat ere ez dago". Ondorioak oso negatiboak direla esan dute, "kolektibo garrantzitsuak etxebizitzaren merkatutik kanpo geratu direlako. Gazteek beste herri batzuetara bizitzera joan behar izan dute eta behar izaten dute. Errenta alturik ez duten beste kolektibo batzuk ere kaltetu dira, hala nola guraso bakarreko familiak eta ezintasuna dutenak".

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Alain Eiguren da ekaineko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Lezamako EAJk eta EH Bilduk mehatxu larritzat jo dute udalerrian zabortegia egitea



Enpresa sustatzaile batek Lezaman zabortegi bat egiteko interesa adierazi zuen duela hilabete batzuk. Zabortegi hori Euskal Autonomia Erkidegoko edukiera handienekoa izango litzateke. Lezamako Udaleko Osoko Bilkura osatzen duten bi alderdiek, EAJk eta EH Bilduk, adierazpen instituzionala egin dute egitasmoaren harira. Adierazi dutenez, "proiektua oraingo eta etorkizuneko mehatxu larria da gizarte- eta hirigintzagarapen iraunkorren itxaropenetarako, bai Lezamarentzat, bai alboko herrietzat".

URA agentziak egindako kontsulta baten bidez izan zuen Lezamako Udalak enpresa sustatzailearen asmoaren berri.

Kontsulta horretan, zabortegiaren kokalekuaren egokitasunari buruz galde-tu zuen URAk eta, "udal talde biak ados, udalak aurkako erantzuna eman zuen". Gainera, alderdi bien iritziz, gaur egungo arau subsidiarioek ez dute udalerrian zabortegirik eraikitzea onartzen.

Enpresa sustatzaileak berak aurkeztutako txostenean jaso den moduan, azpiegiturak 368.549 metro koadro hartu, eta hauek izango litzuzke: hondakinak baliarazteko instalazioa, lurren bankua, bideak eta zerbitzu-instalazioak, lizibatutako tratatzeko gunea, zabortegia, ingurumen-interpretaziorako gela, bulegoak eta aparkalekua. Zabortegiak 3.907.000 metro kubikoko edukiera izango luke eta

bertan hondakin geldoak eta ez arrisku-tsua hartuko lirateke.

"Beste ondasun natural edo ondatze-ondasun batzuen artean, zabortegia egiteak zuzenean eragingo lieke babes berezia duten balio natural handiko lurri, ondare babestu gisa katalogatuta dagoen Eguskitza baserriari eta Eguskitza ibaiari, desagertzeko arriskuan egongo litzatekeena, izan ere, ibaiaren ibilguaz eta ertzez gainera, zabortegiak bere azeleratzea eta goi-ibarra ere hartuko litzuzke", azaldu dute EAJk eta EH Bilduk adierazpenean. Bestalde, jakinarazi dute ez daudela ados URAk egindako txostenarekin. Dokumentu horren arabera, Eguskitza ibaia "isurketa" da eta, hortaz, "zabortegiaren kokalekuak urei buruzko araudia beteko luke".

Alderdi biek berretsi dituzte apirileko herri-bileran beren gain hartutako konpromisoak eta neurriak aztertuko dituzte Lezaman "mota honetako egitasmoak ipintzea ekiditeko". Era berean, konpromisoa hartu dute lezamarrei "proiektuaren bilakaeran interesgarri gerta dakizkiekeen informazio, datu edo izapide guztien berri unean-unean emateko". Adierazpen instituzionala hauei bidaliko diete: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.



Irailaren 17AN IKASTURTE BERRIAREN HASIERA

4 urtetik gorako dantzariak (2017an jaiotakoak) Izen-ematea: irailaren 10an, 18:30etik 20:00ra, Kultur Birkan

ERDU DANTZARA!

LAINOMENDI DANTZA TALDEA



Lezamako Mugetatik lasterketa abuztuan

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Lezamako Mugetatik mendi-lasterketa eta mendi-ibilaldia abuztuaren 29an egingo dira 15. aldiz. Lasterketaren baitan, "Ganguren ziztu bizian" proba ere egingo da. Izen ematea abuztuaren 27ra arte egongo da zabalik eta online egin beharko da www.lezamakomugetatik.com webgunean. Lasterketan 250 korrikalarik parte hartu ahalko dute; ibilaldian, 300 lagunek.



a: Gaizka Peñafiel

Mugiment kirol-txartela Derion

Mugiment kirol-txartel bateratua da, doakoa, eta Derioko abonatuak ekimenarekin bat egin duten udalerrietako kirol-instalazioak erabili ahalko dituzte gastu gehigarririk gabe, udal bakoitzak ezarritako neurrien arabera. Helburua da kirola sustatzea eta kirol-eskaintza handitzea. Txartel birtuala da eta aplikazioa Google Playn eta App Storen dago. Informazio gehiagorako: www.kiroltxartela.eus/eu.



Laguntza-txakurra Liherrentzat eta Haizearentzat

Liher eta Haizea neba-arrebak sei eta lau urte dituzte hurrenez hurren eta Zamudion bizi dira. Biek autismoaren espektroko nahasmendua dute. Gurasoek kanpaina bat ipini dute martxan <https://proyectopuppy.obrasocialschadia.com/webgunean>, seme-alabentzat laguntza-txakurra hartu ahal izateko. Azaldu digutenez, txakurra hezteko prozesuak urtebeste irauten du eta 18.322 euro balio du.

"Txakurrak etxean zein kalean lagunduko liguke", esan digu Joana Oterok, Liherren eta Haizearen ama denak. "Umeak ez dira kaleko arriskuez ohartzen eta, gainera, zarata eta argiak direla-eta krisiak izan ohi dituzte kalean: haietako batek atakea badu, handik gutxira besteak ere izaten du, elkarri kutsatzen diotelako. Halako egoeretan, nik umeetako bat zaintzen dudan bitartean, txakurrak bestea zaindu ahalko luke, eta mina har dezala ekidin. Edo haietako bat korrika iriteten bada, bere atzetik joan. Era berean, txakurrak lagundu ahal die eskailerak eta zintarriak jaisten ikasten, kalea zebra-pasaguneetatik gurutzatzen... Ondorioz, umeak pixkanaka-pixkanaka ikasiz joango dira noiz eta non gelditu behar diren, nondik pasatu...".

Lekuetara joatea ere korapilatsua da Liherrentzat eta Haizearentzat eta txakurrak horretan ere lagunduko lieke. "Esaterako, medikuarenera joateko. Izan ere, haietako batek medikuarekin hitzordua badu, bestea ere eraman behar dut kontsultara eta txakurrak lagunduko lieke bertan lasaiago egoten, medikuak bere arrebak edo bere neba artatzen duen bitartean". Bestalde, lo egiteko orduan ere mesedegarria izango litzateke umeek laguntza-txakurra hurbil izatea. "Ezin dute atsedetik hartu eta lo egiteko orduan pertsona batekin egon behar dute denbora osoan. Lasaitzeaz gainera, txakurrak konfiantza emango lieke, apur bat bakarrik egon ahal izateko. Nire ustez, laguntza-txakurrari esker, seme-alabek lortuko



lukete pixka bat autonomoagoak izatea eta pentsatzen dut hori inportantea dela, askatasun apur bat eta segurtasuna behar dutelako".

Oterok hainbat atetara jo du laguntza bila, baina autismoaren espektroko nahasmendua duten umeentzako laguntza-txakurrak daudela ez da ezaguna eta erakundeen aldetik ez du laguntza handirik jaso. "Txakurra hezi behar da Liherrri eta Haizeari lagundu ahal izateko, eta kanpainaren helburua da dirua batzea ikaste-prozesuaren gastuak ordaindu ahal izateko. Zamudioko Udalarekin ipini gara harremanetan, gure egoera azaldu diegu eta laguntzen ari zaizkigu". Diru-ekarpenak hasieran aipatutako webgunearen bidez egin daitezke; hala ere, Oterok adierazi du laguntza-mota guztiak hartzen dituztela atsegin handiz, hala nola kanpaina ahalik eta gehien zabaltzea eta guneak edo lekuak uztea, erakustaldiak egin ahal izateko eta jendeak ezagutzeko laguntza-txakurrek autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonekin egiten duten lana.

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheas Derio 48160
94 454 03 95
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Tramutzu etorbidea, 3-4
413. Salgarra
48100 Derio
Telefonu eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euzkadi.net

Txondorra piztuko dute Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, txondorra egin da Ubiritxagako larrinetan, Larrabetzutik Lezamarako bidean. Txondorra abuztuaren 1ean, 10:30ean, piztuko dute eta nahi duen guztia hara hurreratu daiteke "bai ikustera, bai hurrengo egunetan beharrezkoa izango den txondorraren zaintza-lanetan izena ematera".

Egitasmoa martxan ipini dute Sabin Aranak, Migel Angel Lekuek eta Garbiñe Etxebarriak hainbat herrikideren, Gym Berdea ekimenaren eta udalaren babespean. "Urte luzeetan, burdinolak ezinbestekoak izan dira Euskal Herriaren zein Larrabetzuren garapen ekonomikorako eta sozialerako. Era berean, ikatza ezinbestekoa zen burdinolek funtzionatzeko: ikatz barik, burdinolarik ez. Ikatza bertoko zuhaitzen egurra erabilia eraikitako txondorretatik lortu dugu euskaldunok mendeetan zehar, modu artisaun".

Larrabetzuko txondorrera ailegatzeko modu bi daude: alde bate-tik, Sasine industrialdeko Bideko gasolindegia-aren aurrez aurre dagoen zubitik, eta bestetik, Viveros Pericaren bide-seinalearen parean dagoen estratatik.



Txiki-txoko-park bat atontzen dabilta Loion

Josu Andoni Begoña Loiu-ko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, egitasmoak hiru helburu ditu: erabilera anitzeko kirol-aretoa handitzea, txiki park bat ipintzea eta umeen urtebetetzeak ospatzeko txoko bat atontzea.

Begoñaren hitzetan, erabilera anitzeko aretoa txiki gelditu zen bertan kirol-ekintzak egiteko, hala nola zumba eta aerobic. Arazoari konponbidea emateko, erabilera askotariko aretoa Kultura Etxeko goiko solairura eramango da, eta, leku handiagoa izateko, gaur egun erabiltzen ez diren hango gunek batzuk zabaldu. Alkateak esandakoaren arabera, pandemiaren aurretik bazegoen leku-arazoa eta gaur egungo osasun-egoeraren ondorioz, "egitasmoa aurreratu behar izan dugu herritarren onurarako".

Bestalde, erabilera anitzeko aretoa gaur egun arte egon den lekuan txiki park bat eta ludoteka ipintzeko asmoa du Loiu-ko Udalak. Gune berriak, besteak beste, jolasak, txirristak eta bolen igerilekua izango ditu. Gainera, ludoteka txoko bihurtu ahalko da, asteburuetan herriko umeek urtebetetzeak bertan ospatu ditzaten.

Gaztelekua berritua

Loiu-ko Udalak herriko gaztelekua berritu du eta, besteak beste, lan hauek egin dira bertan: hormak eta sabaia margotzea, altzariak aldatzea, ordenagailu berriak eta telebista ipintzea eta bilarra eta mahai-futbola jartzea. Gaztelekuan hainbat jarduera egiteko aukera egongo da, hala ere, Begoñaren hitzetan, gaur egungo osasun-egora dela-eta itxaron beharko da gazteentzako gunea ireki ahal izateko.



Artxandako lur azpiko ur-biltegia martxan

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak jakinarazi duenez, Artxandako lur azpiko ur-biltegi berria martxan jarri da. Biltegi berriak 2.000 metro kubikoko edukiera du -aurrekoa 400 metro kubikokoa zen- eta 24 orduan etengabeko hornidura bermatuko du 5.000 biztanle ingururentzat. Zehatz-mehatz, eremu hauek hornituko ditu: Sondikako San Roke auzoa, Zamudioko Galbarriatu auzoa, Derioko eremu bat eta Bilboko Avril Mendia, Remar-Sarrikue eta Artxanda auzoak.

Obra egiteko, 4,3 milioi euroko ipini dira eta Ur Partzuergoak Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen hitzarmenaren bidez finantzatu da. Lanak 2018an hasi ziren eta hiru fasetan egin dira: zuhaitzak kendu eta egokitze-lanak, biltegia eta hodi berriak eraikitzea eta eremua atontzeko eta hobetzeko lanak. Izan ere, lekua aisialdirako berreskuratu da. Besteak beste, San Roke bi-

dea atondu eta handitu da eta aparkaleku berriak eta umeentzako jolastoki berri bat ipini dira. Era berean, oinezkoentzako pasealeku berriak jarri dira, argiteria hobetu, landare inbaditzaileak kendu eta bertako espezieak landatu.



Oihalezko poltsak

Uztailaren 3an Plastikozko Poltsarik Gabeko Nazioarteko Eguna izan zen eta Emauseko PAI Bitartean zerbitzuak ekarpena egin zion egunari. Horrela, eguneko zentroaren erabiltzaileek oihalezko poltsak diseinatu eta egin dituzte, plastikozko poltsaren ordezkari jasagarri horiek erabiltzeko. Poltsak deriozterren eta Emauseko langileen artean banatu dituzte.



Ikastaroak Loiu

Josu Andoni Begoña Loiuko al-kateak bere webgunearen bidez jakinarazi duenez, urrian hasiko dira berriro kultura- eta kirol-ikastaroak udalerrian. Izena ematea irailaren 13tik 20ra bitartean egongo da zabalik. Horretarako inprimakia bete eta udaletxean bertan aurkez daiteke, edo ikastaroak@loiueus helbide elektronikora bidali.

Begoñaren hitzetan, pandemia dela-eta edukiera mugatu behar izan dute zenbait ekintzatan, "hala ere, ikastaro gehiago antolatuta ditugu ahalik eta jende gehienak parte hartu ahal izateko". Ohiko ikastaroez gainera, nobedadeak egongo dira nagusientzat –hipopresiboak, calistenia... – zein txikiak – antzerkia –.

Abuztu kulturala Larrabetzun

Uda honetan ere ez da Larrabetzun herriko jairik egongo. Hala ere, eta "Ein geinke" lelopean, abuztu kulturala antolatuta da, kulturari garrantzia eta bultzada emateko asmoz. Antolatzaileek adierazi dutenez, indarrean dauden osasun- eta segurtasun neurriak bete beharko dira ekitaldi guztietan, musukoa jantzi eta antolatzaileen esanak bete. Gainera, izena eman beharko da ekitaldietan parte hartu ahal izateko: ein-geinke2021@gmail.com. Egoera zein den ikusita, aldaketak egon ahalko dira.

Abuztuak 14, zapatua

11:00 Kalejira: txistulariak, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akarbaltz.

12:00 Pilota-partidak: Arrizabalaga – Gaminde vs A. Aldai – G. Aldai.

18:00 Umeentzako ekojolasak, Plisti Plastaren eskutik, eskolan.

22:00: Kontzertua: Amak. Eskolako aterpean.

Abuztuak 15, domeka

11:00 Kalejira: txistulariak, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akarbaltz.

12:00 Dantza-erakustaldia, Bizkargi dantza-elkartearen eskutik. Frontoian.

18:00 Zirku-antzerkia: Prozak, Malas Compañías taldearen eskutik. Frontoian.

22:00: Kontzertua: Puro Relajo. Eskolako aterpean.

Abuztuak 16, astelehena

11:00 Kalejira: txistulariak, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akarbaltz.

11:00-14:00 Fotokola.

12:30 Herri kirolak, frontoian.

18:00 Antzerkia: Bost minutun, Andoni Agirregomezkortaren eta Itziar Urretabizkaiaren eskutik. Eskola-gunean.

22:00: Ez da kasualitatea bertso musikatua: Jone Uria, Jone Larrinaga, Nerea Ibarzabal eta Onintza Enbeita. Gai-jartzaila: Maite Berriozabal. Eskolako aterpean.



Abuztuak 30, astelehena. Eleizalden

17:00 Umeentzako jolasak; ostean, buruhandiak.

19:30: Kontzertua: Mixerableak.

Abuztuak 31, martitzena. Eleizalden

12:00 Bertso-saioa: Angel Mari Peñagarikano eta Fredi Paia. Elizpean. Ostean, buruhandiak.

Irailak 1, Eleizalden

17:00 Antzerkia: Futbolistok, Zuhaitz Gurrutxagaren eskutik. Elizan.

Bestalde, Lezaman ere ez da irailean jairik egongo. Halere, aipatu beharra dago bertan ere hainbat aukera aztertzen da biltzala kultura-astea egiteko. Antolatzaileen asmoa da kultura-ekitaldiak irailaren 2tik aurrera izatea eta, aurreratu dutenez, baliteke, besteak beste, bertso-saioa, kontzerturen bat, antzezlan eta mago baten emanaldia egotea. Dena dela, aurrerago emango dute informazio zehatzagoa.



ZAMUDION BERTAN GAUDE

Alberto Gainza:
691606715

info@baires.org.es
www.baires.org.es



GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Ekonomia astinduta, gizarteak lasai jarraitzen du. Argindarraren prezioak gora egin du, errekor polita. Gasolina ere lehen baino garestiago dago, beharrezko jokabide ekonomikoa. Janaria, zerutik, jendearen poltsikoa ukituta... Hurrengoa, zer? Noraino? Noiz arte? Oso isilik gaude; isiltasunak ez du aldaketarik ekarriko.

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



PATXI KOOP

PAZO KOOPERATIBA ELKARTEA
Naberan puzigana | Txerrieta 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 527 087 | info@patxi-koop.com | www.patxi-koop.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokorako kanakalariak
Mantentze gutxi-ikusiak
Bulargok eta lokailak
Otroa emateko garbitutak
Ikastetxeak
Zahar bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa - Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) - 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net - Fax: 94 406 49 93

SANTI MIAMI
ALBATARRITZA

Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 18:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

“Gakoa da desgaitasun intelektuala dutenei egin ahal dutena egiten laguntzea”

ESTIBALIZ JORGE SILVA | laster abokatua



Uztailean, Kongresuak lege-erreforma garrantzitsu bat onartu du, desgaitasun intelektuala duten pertsonak judizialki ezgaitzea debekatzeko. Lege berria irailean sartuko da indarrean, eta Gure Señeak Derioko elkarteak hitzaldia antolatu zuen arauaren nondik norakoak ezagutzera emateko. Adolfo Alonso Carvajal familia-abokatuarekin batera, Estibaliz Jorge Silva derioztar gazteak, laster abokatu izango denak, hartu zuen parte hitzaldian.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Estibaliz Jorgek azaldu digunez, legeak ekarriko duen aldaketarik inportanteena da ezingo dela judizialki aldatu desgaitasun intelektuala duten pertsonen jarduteko gaitasuna. “Oraintsu arte onartzen zen pertsona horiek ez zutela euren

kabuz erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasunik; lege-erreformari esker, ordea, abiapuntua da guztiok dugula gaitasun juridikoa baldintza berberetan. Hau da, lehen, erabakiak zuzenean hartzen ziren desgaitasun intelektuala duen pertsonaren orde; orain, berriz, saiatuko da pertsona horrek uler dezala berari dagokion

“Saiatuko da pertsonak uler dezala berari dagokion edozein kontu, bere nahia berak adierazteko”

edozein kontu –zerbait sinatu behar izatea, adibide bat ipintzearen–, bere gogoia edo nahia berak adierazteko”.

Hortaz, gogoia ordezkatzeko sistema batetik babes- eta laguntza-sistema batera pasatzen da. “Adingabekoentzat izan ezik, ezabatu dira tutoretza eta guraso-ahal luzatua eta birgaitua. Esan moduan, lehenengo eta behin saiatuko da pertsonak berak har ditzan bere erabakiak; hala ere, bere desgaitasun-gradua dela-eta ezin badu, laguntza-neurrien prozedura zabalduko da eta aztertuko da zeintzuk diren pertsona horrek konkretuki behar dituen laguntzak; hau da, neurrirra egindako prozedura izango da”. Prozeduraren lehenengo urratsa egitatezko zaintza da. “Adibidez, gurasoek semea edo alaba zaintzen dute eta ez dute bestelako laguntzarik. Nolanahi ere, pertsonak berak bere gogoia adierazi ezin badu, kuraordetza ipintzen da martxan, baina aurretik laguntza-prozedurari eman behar zaio lehentasuna. Kuradoreak pertsonak berak aukeratu dezake eta, edozein arrazoi tartean, egiten ez badu, jardunbidea senide batek edo epaile batek has dezake. Kuradoreak ez ditu erabakiak pertsona horren orde hartuko; hori gabe, aholkua eta laguntza emango dio. Halere, muturreko

“Behar bada, laguntza-neurrien prozedura zabalduko da eta bakoitzak behar dituen laguntzak aztertu”

“Kuradoreak ez ditu erabakiak pertsona horren ordezt hartuko; hori gabe, aholkua eta laguntza emango dio”

kasuan kuradoreak pertsonaren mesederako erabaki behar badu, pertsona horrek adierazi nahiko lukeena dela bermatzen saiatu beharko da, eta horretarako bere gustuak, aurretik hartutako erabakiak... kontuan hartu”.

Komenigarria da kuradorea desgaitasun intelektuala duen pertsonaren inguruko izatea, eta pertsona hori ahalik eta ondoen egotea nahi izatea. Kuradorearen lana ordaindu egiten da. “Gaitasuna duela ulertzen denez, desgaitasuna duen pertsonak bere ekintzen erantzule zibila izango da. Kuratela pertsona horren ekintzen erantzule zibila izango da, baldin eta erabateko ordezkartza badu eta ez badu pertsona behar moduan babestu edo bere mesederako jokatu”. Laguntza-prozeduran eta kurateleri lotutako prozeduran hainbat eragilek hartuko dute parte, hala nola talde sikosozial bat, epailea, fiskaltza eta pertsonaren senideak edo lagunak. “Desgaitasun-graduaren arabera laguntza- eta

Prozeduretan, besteak beste, talde sikosozialak, epaileak, fiskaltzak eta senideek hartuko dute parte

babes-neurriez gainera, pertsonak aurretik kuradorerik aukeratu duen edo ez ere hartuko da kontuan, eta edozein arrazoi dela eta pertsona hori kuradore gisa aritu ahal ezean, beste bat izendatuko da”.


Aldaketa garrantzitsua

Derioztarraren iritziz, lege-erreformak oso aldaketa garrantzitsua ekarri du, desgaitasun intelektuala duten pertsonen iritzia aintzat hartuko delako. “Gauza ez da haiei eskubideak kentzea, egin ahal dutena egiten laguntzea baizik. Gizarterako ere inportantea dela pentsatzen dut, pertsona hauen egoera eta eskubideak ikustarazteko baliagarria delako. Bestalde, egia da prozedura korapilatsua izango dela, zeren eta administrazioak esparru honetan espezializatuta dauden langile asko beharko baitu eta, beste aldetik, topatu beharko delako erarik egokiena desgaitasun intelektuala duten pertsonen gogoia adierazteko. Edozelan ere, gizarteak aurrera eginez doa, baita legeek ere, eta guk haiekin batera egin behar dugu aurrera”.

Lege-erreforma ez ezik beharrezkoak diren beste aldaketa batzuk ere izan ditugu hizpide abokatuarekin, esaterako,

bere ustez, hezkuntza- eta kirol-arloan egin beharko liratekeenak. “Espainiak eta Europar Batasunak ez dute etxean ikastea onartzen, baina kasu batzuetan erabat gomendagarria da. Izan ere, desgaitasuna duen ume bat ohiko eskola batera eramaten bada, bermatu beharko da ikastetxe horretan umeak behar duen laguntza egongo dela eta askotan ez da horrela. Beraz, onuragarriagoa da ume horrek etxean bertan ikastea. Era berean, pertsonen beharrezkoetara egokitutako kirol-eskola bereziak sustatzea beharrezkotzat jotzen dut”.

“Gizarterako ere inportantea da, pertsona hauen egoera eta eskubideak ikustarazteko baliagarria delako”



Hurbiletik

Estibaliz Jorge Silva 24 urteko derioztarra da. Familia Zuzenbide Masterra egin du eta orain Abokatutza Jarduerarako Unibertsitate Masterraren praktiketan dabil Bilboko RNL Abogados bulegoan. “Zuzenbidea ikasi, eta hasieratik argi nuen familiaren eta desgaitasunaren arloetan lan egin nahi nuela: desgaitasuna duen ahizpa dut eta horregatik nago hain lotuta gaiari. Gradu amaierako lana lege honen aurreproiektuari buruz egin nuen duela hiru urte”. Kontatu digunez, praktikak amaitu, abokatu aritu ahal izateko Estatuko azterketa egin eta lanean hasteko gogo bizia du.

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Garbea kalea, 5 Tif. / Faxa:
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

Enaitz
TABERNA
Ogitarteak 94 455 42 15
Anoak Garaioltza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza suzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

“Espezie guztiok eskubide berberak ditugu, bizitzeko eskubidea”

AINARA EREZUMA ZUBIAUR | beganoa



Hamazortzi urteko lezamarrak okela gehiagorik ez jateko erabakia hartu zuen 2018ko abenduan. Espezie guztiok berdinak garela uste du, eta, hortaz, espezie guztiok merezi dugula errespetuz tratatuak izatea. Baita bizitza duina ere.

t: Itxaso Marina Ondarroat

Zergatik erabaki zenuen okela jateari uztea?

Animaliak beti izan ditut gustuko eta, gainera, amama begetarianoa da. Nolanahi ere, faktore erabakigarria izan zen *El día que sueñas con flores salvajes* eleberria. Paola Calasanz *Dulcinea* idatzitako istorioa da eta, beganismoari buruzko liburua ez den arren, beganismoa zeharkako moduan azaltzen da bertan, egilea bera beganoa delako. Animalientzako aterpetxe batean bizi den familiaren istorioa da: animaliak hainbat arrazoiengatik ailegatu dira aterpetxera eta animalien eta pertsonen arteko lotura kontatzen da. Liburua irakurtzen amaitu bezain laster, gurasoei esan nien ez nuela berriro okelarik jango.

Bestalde, espezismoaren kontrakoa naiz; hau da, pentsatzen dut espezie guztiok eskubide berberak ditugula, bizitzeko eskubidea. Ez naiz inor animalia bat hiltzeko eta gero jateko. Ez dut uste animaliek sufritu behar dutenik.

“Ez naiz inor animalia bat hiltzeko eta gero jateko; ez dut uste animaliek sufritu behar dutenik”

Beganoen dieta aspergarria den ustea dago, horrela da?

Nik denetarik jaten dut, esaterako, era askotako entsaladak, barazkiak, lekaleak,

haziak, tofua, kuskusa... Errezeta batzuk ikasi ditut, baina ez dut normalean arazorik izaten: hozkailuan eta sukaldeko armairuetan zer dagoen begiratu eta berehala prestatzen dut jatekoa. Osagaiak nahastea gustatzen zait. Gainera, gero eta produktu begano gehiago daude janari-dendetan, adibidez, hamburgesak; dena dela, horiek ahalik eta gutxien jaten saiatzen naiz, produktu prozesatuak direlako.

Etxean badago eztabaidarik?

Gurasoak apur bat harritu ziren erabakia jakinarazi nienean, baina, egia esan, normal-normal hartu dute. Are gehiago, orain lehen baino askoz haragi gutxiago jaten da etxean. Bestetik, ingurumen-zientziak ikasten nabil Gasteizen eta, beraz, nire jatekoa neuk prestatu ohi dut.

Eta lagunekin? Zaila da bazkariak eta antolatzea?

Gero eta jatetxe gehiagok eskaintzen dituzte plater beganoak eta beti dago zer jan, entsalada soil bat bada ere. Lagunek ulertzen dute nire erabakia. Gainera, haietako bat ere beganoa da, eta beste bat, be-

getarianoa. Ez dago liskarrik gure artean; begirunezko eztabaidak, ordea, bai. Eztabaidak gustatzen zaizkit, pentsatzen dudalako baliagarriak izan ahal direla baten batek hausnarketa egiteko eta sikiera okela gutxiago jateko. Lagunak kontzientziatzen ahalegintzen naiz, okela- eta arrain-industriaren atzean zer dagoen jakin dezaten.

“Eztabaidak gustatzen zaizkit, baliagarriak izan ahal direlako baten batek hausnarketa egiteko”

Zer dago horien atzean?

Oso industria krudelak dira: animaliak argia ikusi barik hazten dira, oso leku txikietan, txahalak goiz-goiz aldentzen dituzte behiengandik, esnea ekoizteko... eta arrain-haztegiak ere ez dira leku hobeak. Horren harira, bi dokumental ikusteko gomendioa egin nahi dut: *Seaspiracy* eta *Cowspiracy*. Oso industria kutsakorrek ere badira. Halarik ere, egia da aldea da-

goela ohiko baserrien eta ustiategi erraldoien artean.

Hobeto sentitzen zara beganoa zarenetik?

Hobeto sentitzen naiz, gauzak nire ideologiarekin bat etorrira egiten ditudalako. Osasunaren aldetik ere ondo nago, eta egindako analisiak beti izan dira onak. Beganook proteina-eskasia dugula pentsatzen da, B12 bitamina falta zaigula... Baina proteina-falta edozein dietatan egon daiteke, orojaleen dietan ere bai, denetarik jaten ez bada. Gakoa da zer jan behar duzun jakitea. B12 bitaminari dagokionez, nik osagarri bat hartzen dut. Bitamina hori animaliak janda hartzen da; halere, gaur egun euren elikadura dela-eta animalia batzuek ere bitamina horren falta dute eta osagarriak ematen dizkiete.

Analisiak onak izanda, medikuarekin ere eztabaidarrik ez?

Ez. Behin nutrizionista batengana joan nintzen, gurasoak kezkatuta zeudelako nire dietarekin. Nutrizionista hark esan zidan berak ez zidala gomendatzen dieta beganoa hartzea, zeren eta bere iritziz beste jateko batzuk ere beharrezkoak baitziren

“Hobeto sentitzen naiz, gauzak nire ideologiarekin bat etorrira egiten ditudalako”

nire adineko pertsona batentzat. Aitortu behar dut ez naizela nutrizioan aditua, baina beste nutrizionista batzuei entzun diet beganismoa bizitzaren etapa guztietan dela egokia eta gomendagarria.

Okela jateko tentaziorik izan duzu inoiz?

Ez dut ukatuko noizbait txuletoi bat jateko gogoia izan dudala, baina ez dut jan, gogoaren gaintetik nire ideologia dagoelako. Baina, egia esateko, hasi naiz okela gorpua balitz moduan ikusten... Beharbada, donutsen, pastelen... falta sentitzen dut gehiago; edozelan ere, gaur egun ez da arazoa, pastel beganoak saltzen dituzten dendak daudelako eta nik ere egiten ikasi dudalako.

Arropa beganorik erabiltzen duzu? Bestelako produkturik?

Nahiz eta urte bi eta erdi hauetan akatsak egin ditudala ziur nagoen, ahaleginak egiten ditut, adibidez, larruzko arroparik ez erabiltzeko. Kosmetikako produktuei dagokienez, hala nola xanpua eta abar, produktuak animalien gan probatzen ez dituzten markak daude, eta animalia-jatorriko osagaiak erabiltzen ez dutenak.

Garestia da beganoa izatea?

Uste hori zabaldu da, baina ni ez nago guztiz ados. Garestia da zure dieta zein den. Hau da, batez ere ortuariak jaten badituzu, merkeagoa izango da; beti hanburgesak janez gero, garestiagoa. Lekaleak ere merkeak dira.

Merezi du?

Bai, gauza guztien gaintetik gainera-koen bitzta errespetatzea dagoelako.

Zein da lehen urratsa okela gutxiago jateko, edo behintzat saiatzeko?

Ondo informatuta egotea ezinbestekoa da, izan ere, jaten dugun gehiena nondik datorren ere ez dakigu. Kontzientziatuta egotea ere inportantea da. Nire kasuan, adibidez, uste dut kontzientziatuta egon ezean zailago izango nuela okela jateari uztea. Badakit ez dela erraza egun batetik bestera haragi gutxiago jatea, baina saiatu daiteke, eta konturatu zein den industria hauek animaliei, ingurumenari eta batzuetan langileei ere ekartzen dieten kaltea.

Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Landa Heziketa eta Bideren Ikasketuzako Institutua

Unitzaga Ibaia Kalea, 1 | 48160 - DERIO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

Matrikula zabalik.
Kontsultatu datak webgunean:
www.txorierri.net

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Deseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

IKASTOLAREN GARAPEN ETA ADAPTATZE SAIA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

IKASTOLAREN GARAPEN SAIA
ER
AGORRI

IKASTOLAREN GARAPEN SAIA
HETEL
IKASTOLAREN GARAPEN SAIA

40 urte, milaka txori

Esan baietz ligoteo osasuntsuari

Ligoteo edo ligatze hitza askotan erabili izan dugu, baina benetan ba al dakigu zer den ligatzea? Eta, zer behar da ligatu duzula esan ahal izateko?



Ligoteoarena esparru zabala da, eta ez da bakarrik norbaitekin liatzea, hitz egitea..., ligoteo sana jolasa eta ondo pasatzea da, baina ligatzean zenbat aldiz lotsatu gara? Edota txarto sentitu? Beldurtuta sentitu zara ezetz esaterakoan?

Egoera desatseginak berriro ez bizitzeko hona hemen ligoteo sanorako aholku batzuk:

1.Hurreratzea

Norbaitekin ligatzerakoan eta berarengana hurreratzekoan, interesa duen ikusi, bestela GELDI. Biok interesa baduzue, AURRERA, baina edukazioarekin eta giro onean hurbildu. Inoiz ere ez behartu edo beldurtu. Zutaz paso egiten badu ez zaitetz astuna izan eta alde egin. Ez beti da ez!

2.Ligatzea dibertigarria da. Ala ez?

Ligatzea dibertigarria da parte hartzen dauden kide guztientzat. Momenturen batean partaide bat ez bada dibertitzen edota ondo sentitzen, GELDITU! Hori ez da ligatzea eta gelditzeko momentua da. Ligatzen zauden pertsonarekin ondo sentitzen bazara ordea, eta zu baino gehiago ez dela sentitzen baduzu, AURRERA! Hori bai bada ligatzea eta bide horretatik ondo zabilta.

3.Edozein momentutan, zure erabakia alda dezakezu

Ligatzen ari zara, baina bat- batean iriziz aldatzen duzu eta ez duzu jarraitu nahi, ESAN eta ez lotsatu. Bakoitzak erabakitzen du zer egin nahi duen eta noraino iritsi nahi duen. Ez diozu ezer zor inori eta zure

gorputzaren inguruan ZUK erabakitzen duzu. ZUK BAINO EZ! Nahiz eta hasieran baiezkoa eman, ezezkoa eman dezakezu edozein momentutan; zuk erabakitzen duzu.

4.Enpatia eduki behar da

Ligatzen zauden pertsonarekin errespetuz jokatu behar da, ez egin zuk gustuko ez duzun ezer; izan ere, ezin duzu negarrez utzi zuk esandakoarengatik. Gauzak tentuz esan behar dira, baina jarraera asertiboa izan behar duzu. Ezin dugu ahaztu, gure buruak daukala lehenetsuna.

5.Ezetz jasotzen ikasi

Ezetz esan badizute, EZETZ DA, baina horrekin ez da mundua amaitzen. Ezetz jasotzen jakin behar da eta horregatik, ez



duzu zertan zeure burua gorrotatu eta ez duzu beste pertsona tematzen jarraitu behar. EZ horren atzean hamaika arrazoi egon daitezke (ez zaitu gustuko, bikote-kidea dauka, ez dauka gogorik...). Dena den, ezetz esaten badizu, zer gertatzen da? Ba EZER EZ!

6.Pausua nork eman behar du?

Ligoteo sanoan ez dauka garrantzirik nork ematen duen pausoa, ezin dugu itxaron besteak pausoa eman arte. Zuk egin nahi baduzu, aurrera, eta ez duzu atzera egin behar. Joko honetan bi aldeetatik errespetua egon behar da, eta arauak biok jarri behar ditugu. Batek baino ez baditu jartzen, GAIZKI. Hori ez da bidea.

7.Konfiantza

Konfiantza egotea ezinbestekoa da. Askeak garelako gauzak egiteko eta ez egiteko eta horretarako, konfiantza behar da, bestearekin edozertaz hitz egiteko. Beraz, ezinbestekoa da hitz egitea eta bakoitzaren gauzak azaltzea. Bestela, nola jakingo du besteak zer nahi dugun edo zer ez dugun nahi?

Orduan prest al zaude ligoteo osasuntsuaren munduan barnertzeko? Bai, noski, ligoteo sanoaren sekretua, errespetua, gozamina, enpatia, aniztasuna... direlako, eta horretaz gozatzen ikasiko duzulako.

Baina ligoteo sanoa ez da zertan aurrez aurre egin, ligatzeko moduak aldatu egin baitira. Gaur egun, ez daude jaiak, ezta txosnarik ere, gimnasioko taldeak txikiagoak dira, distantzia neurriak, pandemia... Beraz, gaur egun ligatzea zaila izan arren, sare sozialen bitartez edo aplikazio espezifiko batzuen bitartez egin dezakegu: jende berria ezagutu dezakegu, jende lotsatiarentzako paregabea da, bestearen asmoak ezagutu ahal ditugu. Baina hemen ere aholku batzuk kontuan izatea komeni da:

- Aplikaziorik egokiena erabili.
- Argi eduki zer bilatzen duzun.
- Perfil on bat sortu, eta zu zaren bezalakoa izan.
- Zintzoa izan.
- Zure emozioak adierazi.
- Konfiantzazko espazio bat sortu.

Gozatu udaz eta ligoteo osasuntsuz!

Anne Embeita

Txorierriko Manomunitateko Berdintasun Teknikaria

“GUROT” euskal galderen unibertsoaren saria Txorierrira!

GUROT programa informatikoa 12-17 urteko gazteentzat sortutako online jolas interaktiboa da, gaur egun 1000 galderatik gora dauzkana zortzi arlo desberdinetan banatuta.

Martxotik ekainera banakako txapelketa antolatu da eta guztira Bizkaiko 153 gaztek hartu dute parte programan. Hortik 90 neska-mutil txorierrikoak izan dira.

Puntu gehien lortu dituzten lehenengo 10 parte-hartzailearen artean patinete elektrikoa zozketatu zen ekainaren bukaeran eta irabazlea Derioko gazte bat izan da, Beñat Rodriguez, Txorierrri BHI institutuko 15 urteko gaztea, hain zuzen ere.

Argazkian, Mankomunitateko bulegoetan ikus dezakezue saria jasotzen, Mankomunitateko euskara arduraduna den Jon Ander Aurrekoetxearen eskutik. Zorionak Beñat!.



Zure gorputza maitatu eta udaz gozatu

Uda heltzen denean, gure gorputzaren inguruko konplexuak eta lotsak hasten dira eta momentu horretan “operación bikini” delakoa hasten dugu. Baina, zergatik zigortzen dugu gure gorputza?

Ezinbestekoa da gure gorputza maitatzea den bezala eta gehiago estimatzea. Horretarako, gorputzari merezi duen tarte eskaini behar diogu, nahiz eta jakin neurri batean zaintzea garrantzitsua dela.

Kontuan eduki behar da, gorputz guztiak politak eta desiragarriak direla eta estereotipoak erreproduzitzeari utzi behar diogu. Beraz, gozatu zure gorputzaz, jantzi nahi duzun bezala... bakoitzak markatzen ditu bere arauak. Eta beti gogoan izan, bakoitzaren gorputza ez da estetika bakarrik, hori baino gehiago da, egunero zutik mantentzen gaituena. Gorputzarekin hobeto sentitzeko ezinbestekoa da gorputzarekin kontzientzia hartzea eta bera maitatzea.

Gure buruari behar duen garrantzia ematen ikasten dugunean, geroz eta ero-soago eta ederrago ikusiko gara. Beraz, utzi “operazioak” alde batera eta gozatu ezazu zeure gorputz ederraz!

Gizarte-balioa sortzen

Lantegi Batuak kanpaina berri bat ipini du martxan desgaitasun intelektuala duten pertsonen lana ikusgai egiteko eta tokiko administrazioen lankidetzara eskertzeko. Ramon Bernal Zerbitzu Nagusien zuzendariak ezinbestekotzat jo du elkarlanean jarraitzea, "pertsona hauen etorkizuna azken batean guztion ardura baita"

Lantegi Batuak egitasmo berezia da eta duela 40 urte ipini zen martxan. Lantaldea 3.100 pertsona inguruk osatzen dute eta % 82k desgaitasun intelektuala dute. Bernalen esanetan, helburua da desgaitasun intelektuala duten pertsonen lan-merkatura sartzen laguntzea eta, hortaz, euren garapen pertsonalean ere laguntzea.

Egitasmoak Bizkaiko 50 udalerritan baino gehiagotan ditu egoitzak eta hori ikuspuntu sozial batetik ezarritako estrategia da, pertsonen joan-etorriak modu erraz batean egin ahal izateko. Zehatz-mehatz, lau egoitza ditu Txorierri: bi Derion, bat Loiu eta beste bat Sondikan. Lantegi Batuak hainbat zerbitzu eskaintzen die udalerriei, hala nola lorezaintza, kaleak eta eraikinak garbitzea, artxiboak digitalizatzea eta nagusientzako bazkaria etxera eramatea, eta egoitzetan desgaitasun intelektuala duten lagunek ere lan egiten dute. Zerbitzu horiek emateko, udalerrri bakoitzean bertako lagunak enplegatzen dituzte.

Lantegi Batuak 214 milioi euroko gizarte-balio integratua sortzen du Bizkaian. Gizarte-balio integratua kontabilitate-datuetatik eta sortutako lanpostuetatik haratago doa eta gizarteko beste eragile batzuekiko interakzioan sortutako balio globala jasotzen du. "Balio hori kalkulatzeko, erakundearekin zerikusia du-

ten aspektu guztiak hartzen dira kontuan. Esaterako, gurasoek semea edo alaba gure egoitzetako batera ekartzeak ahalbidetzen du biek etxetik kanpo lan egin ahal izatea eta hori balio soziala da. Gure kokapena ere balio soziala da, edota gure hornitzaile nagusiak bertokoak izatea".

Txorierriko datuei dagokienez, eta Lantegi Batuak bere webgunean jakinarazitako informazioaren arabera, aurtun 525.820 euroko gizarte-balio integratua sortu da Sondikan eta udalerriko 22 pertsonak lan egiten dute Lantegi Batuak. Loiu 592.155 euroko gizarte-balio integratua sortu da eta herriko hiru lagun dabilta erakunde lanean. Derion, bestalde, 2.028.224 euroko gizarte-balio integratua sortu da, herriko 22 lagun enplegatzen dira eta lorezaintza- eta garbiketaz-zerbitzuak ematen dira. Zamudion lorezaintza-lanak egiten dira, eta 17 herritar enplegatu. Azkenik, zazpi lezamarrek lan egiten dute Lantegi Batuak, eta lau larrabetzuarrek.

75 txorierriar lan egiten dute Lantegi Batuak; 3,1 milioi eurotik gorako gizarte-balio integratua sortzen da bertan



RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

GALAISIA Etengabeko ordulegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419



ESKE RRIK DERIO

ASKO

Mila esker gure lan konbun hartzagotik.

Lantegi Batuak zure gaitasun onak, gaitasunak, erabilerak eta abar erabiliz, zure lanpostuaren bidez, zure lanpostuaren bidez, zure lanpostuaren bidez.

Alexia Alabart
Lantegi Batuak Denaia (Lantegi Batuak Denaia)

Lantegi Batuak zure udalerrian zer egiten ari den jakin nahi alduzu? Gertu horren.

www.lantegibatuak.eus/eu/bizkaia

Lantegi Batuak

ESKE RRIK SONDIEA

SONDIEA

Mila esker gure lan konbun hartzagotik.

Non ikuski erabilerak erabiltzen diren Lantegi Batuak zure gaitasun onak, gaitasunak, erabilerak eta abar erabiliz, zure lanpostuaren bidez, zure lanpostuaren bidez, zure lanpostuaren bidez.

Patxi Ruiz
Lantegi Batuak Sondika (Lantegi Batuak Sondika)

Lantegi Batuak zure udalerrian zer egiten ari den jakin nahi alduzu? Gertu horren.

www.lantegibatuak.eus/eu/bizkaia

Lantegi Batuak

Gizarte-balioa

Lantegi Batuak kanpaina bat ipini berri du martxan, desgaitasun intelektuala duten pertsonen lana ikusgai egiteko. Era berean, Lantegi Batuak Bizkaiko udalerrietan sortzen duen gizarte-balioa azpimarratu nahi izan dute, eta tokiko administrazioei euren lankidetzeta eta konfiantza eskertu diete. Hala eta guztiz ere, Bernalek gogora ekarri du etorkizunean ere elkarlanean jarraitzea ezinbestekoa dela eta erakunde publikoei eskatu die desgaitasun intelektuala duten herritarrak ere kontuan hartu ditzatela kontratuak-eta egiteko orduan. “Orain arte lortutakoa guztion artean lortu dugu eta hori oso ondo dago. Baina udalen laguntza behar dugu, pertsona hauen etorkizuna azken batean guztion ardura delako, eta lana da gizarteratzeko bidea. Horrezaz gainera, lan egiten badute, zergak-eta ordaindu ahalko dituzte eta hori gizarte osoarentzat izango da onuragarria”.

Kanpaina online zabaldu da eta iragarkiari ipini dira Bizkaiko autobus- eta metro-geltokietan. Kanpainaren harira azaldu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bidez, administrazio publikoek desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukerak bultzatzeko mekanismo bat dutela, irabazi asmorik gabeko enplegu-gune berezien zerbitzuak kontratatuz. “Desgaitasuna duten pertsonen laneratzek sortzen duen gizarte-balioa oso handia da: gizarte-koheresia, komunitate-lotura, lurraldearen gizarte-egitura-keta, kudeaketa publiko-pribatu partekatua erakaztea eta erabilerak, beste zainketa-sistema formal eta informal batzuk ordeztzea eta osasun sistemetan eta gizarte zerbitzuetan aurrezteak”, gailendu dute prentsa-ohar baten bidez. Azkenik, aipatzekoa da azken bost urteetan Lantegi Batuak desgaitasuna duten 200 pertsona baino gehiago Bizkaiko enpresetan laneratzeko lortu duela.

Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

IZ

Ille-apaindegia
estetika

Txanbargorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

HARATEGIA

ALBERTO

Arbolanba, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



09
07

13-13
BENTON & BOWLES

“Umorea da funtzionatzeko gure modua”

ZIRKO TXOSKO

Oscar Paez galziarrak eta Ariñe Azkue gipuzkoarrak Zirko Txosko konpainia osatzen dute. Kaleko zirkua egiten dute eta malabarismoz eta akrobaziaz betetako istorioak kontatzen dizkiete umeei zein helduei. Umorea publikoarengana ailegatzeko tresnatzat dute. Bikotea urtarrilean etorri zen Txorierrira bizi izatera, Larrabetzura hain zuzen ere.

t: Itxaso Marina Ondarroa / Iratxe Pirla

Nola sortu zen Zirko Txosko?

P: Iruñeko Oreka zirku-eskolan eza-gutu genuen elkar eta erabaki genuen Argentinara joatea ikuskizun bat sortzera. Hango zuzendari batekin lan egin genuen eta lau hilabeteren ondoren Galiziara joan ginen. Hamaika urte pasatu dira harrezkero. Tarte honetan ikuskizun gehiago sortu ditugu, eta beste konpainia batzuekin lan egin.

Kuriositatez, zer adierazi nahi du “txosko” hitzak?

A: “Chosco” hitz galegoa da eta adierazi nahi du “ondo ikusten ez duena” eta “begi okerra” ere izan daiteke. Gaur egungo ikuskizunetan betaurrekoak bakarrik nik jantzi arren, hasieran biok erabiltzen genituen eta horri lotuta aukeratu genuen izena: soinu polita zuela pentsatu genuen. Izena askotan aldatu digute, gero: txasko, txoko... denetarik (kar-kar).

Umorea giltzarria da zuen ikuskizunetan, publikoarengana errazago ailegatzeko bitartekoa da?

P: Umoreak bizitzaren gauza guztien parte izan behar du; bestela, txarto goaz. Gure ikuskizunak nahiko dibertigarriak dira, horrelakoak izatea gustatzen zaigulako. Zuzendari batek edo besteak ikuskizunetan gauza poetikoagoak sartzeko esan digu inoiz, baina azkenean txorakeriak sartzten ditugu beti (kar-kar).

A: Talde bakoitzak funtzionatzeko modu bat du eta gurea umorea da, errazten digulako elkarrekin lan egitea eta publikoarengana ailegatzeko. Izan ere, barrearen bidez jendearekin konektatzen da, publikoak pertsonaiak ulertzen ditu eta istorioari jarraitzen dio. Egia da beste ikuskizun mota batzuk ere baditugula,

baina umorearekin disfrutatzen dugu gehien.

Eta zirkuaren diziplina guztiak, edo ia guztiak, lantzen dituzue: malabarismoak, akrobaziaz, orekari eustea, clown... Ikuskizuna aberasgarriagoa da horrela?

A: Gure kasuan, bai. Teknika txiki-txikitatik ikasi ez dugunez, maila bateraino ailegatzeko gara; hortaz, zenbat eta tresna gehiago erabili, gero eta aberatsagoa eta ikusgarriagoa da emanaldia.

P: Gaur egungo zirkua edo “zirku berria” da zirku-teknikak erabiltzen dituen kaleko antzerkia. Dramaturgia apur bat duten ikuskizunak dira eta istorio bat kontatzen da zirku-teknikak uztartuta, hala nola akrobaziaz, kolpeak eta erorikoak.

“Zenbat eta tresna gehiago erabili, gero eta aberatsagoa eta ikusgarriagoa da emanaldia”

“Sasoian egon behar da ikuskizunetan ondo ibiltzeko edo zuzendariak eskatutakoa bete ahal izateko”

Asko entrenatu behar da?

A: Asko ez, baina saiatua izan behar da, eta egunero pixka bat entrenatu. Karola Zirko Espaziora joaten gara entrenatzeko, Zorrotzaurrera, eta asteburuan, etxean.

P: Sasoian egon behar da ikuskizunetan ondo ibiltzeko edo zuzendariak eskatzen duena bete ahal izateko.

Zeuek zuzentzen duzue zuen burua?

P: Ez, ikuskizun berria sortzeko, zuzendari bati edo besteari deitzen diogu eta berak laguntzen digu lana bideratzeko. Guk lantaldea aukeratzen dugu eta ikuskizuna amaituta dagoenean gurea da.

“Zuzendari bati edo besteari deitzen diogu lanak bideratzeko lagun diezagun”

Nolakoa da sormen-prozesua?

P: Zuzendariaren eta bere lan-moduaren arabera da. Gure lan berria, *Oh-Pe-ra!*, Aritz Rodríguezek zuzendu du eta lan asko egin dugu materialekin. Esan genion kuxkak erabili nahi genituela, eta hainbat altueratako estruktura egin. Ideia hori abiapuntutzat hartuta, zer egin ahal zen eta zer ez hausnartzen hasi ginen.

A: Abiapuntua inprobisazioa da beti, eta zuzendariak ikusten du funtzionatzen duen edo ez. Ideiak inprobisazio horretatik sortuz joaten dira.

Blokeorik izaten da?

A: Jendaurrean, gutxitan; sormen-prozesuan, gehiagotan. Hasieran kostatzen da, ikuskizuna zerotik hasten dugulako, baina materiala sortuz joan ahala «subidoia» etortzen da eta desblokeatzen gara.

P: «Bajoia» ere izaten da, izan ere, honen edo bestearekin saiatzen zara eta ez zaitu betetzen. Edo ez zaizu ezer bu-



ruratzten, edo egindakoak ez du funtzionatzen... Orduan zuzendariak gu gidatuz joaten da, harik eta funtzionatzen duen zerbait sortzen den arte.

Bilakaerarik izan duzue talde moduan?

A: Hasieran ez genuen esperientzia handirik publikoarekin, baina urteak aurrera egin ahala, gero eta emanaldi gehiago egin ditugu eta ikusleekin konektatzea errazagoa da orain. Bestalde, hasieran teknikari garrantzi handia ematen banion ere, geroago konturatu nintzen askoz garrantzitsuagoa dela norbera nola dagoen; azken batean berdin dio gauza bat esku batekin edo biekin egiten bada.

P: Gehienbat kaleko ikuskizunak egiten ditugu eta kalean gauza asko gertatzen dira. Gertakizunak ikuskizunean sartu behar dira, publikoa saioaren parte bihurtu, eta, urteetako eskarmentuari esker, horretan ere gero eta trebeagoak gara.

“Kaleko gertakizunak ikuskizunean sartu behar dira, publikoa saioaren parte bihurtu”

Beraz, kalea duzue agertoki.

P: Bai, batez ere kalean egiten dugu lan, jaietan eta festibaletan, baina neguan antzokietan ere bai.

A: Antzokietan egindako ikuskizunaren bideoak eta argazkiak polit-politak dira, oso garbiak; hala ere, nik publikoaren hutsunea nabaritzen dut. Hau da, argiak direla-eta ez dugu publikoa ikusten eta ez dakigu ondo pasatzen ari diren. Gusturago izaten naiz kalean. Orain, ikuskizuna musukoa jantzita ikusi behar denez, kostatzen zait jakitea jendea zer sentitzen ari den, baina pertsona batzuei begietara begiratuta oso argi igartzen da.

P: Gainera, guk publikoarekin inprobisatzen dugu eta antzokiek horretarako mugak ekartzen dizkigute. Horregatik eskatu ohi dugu argia erabat ez amatatzeko, aretoan zerbait gertatuz gero, hori baliatu ahal izateko.

A: Publikoa ere ezberdina da: antzokira joaten dena ikustera joaten da; kalean, berriz, ikustera joaten dena izaten da, baina hortik pasatzen dena ere bai, eta azken horiek erakarri behar dira.



“Publikoarekin inprobisatzen gara eta antzokiek horretarako mugak ekartzen dizkigute”

Badago alderik herri baten eta beste baten publikoaren artean?

A: Bai, eta horretara moldatu behar duzu, gainera: esaten edo egiten dutena hartu, ikuskizunerako erabili, gelditu, jarraitu... Euskal Herriko ikusleak nahiko serioak dira, gero asko txalotzen duten arren. Baita frantsesak ere. Andaluzian, ordea, denez, denarik esaten dute, eta ikuskizunean parte hartu. Portugaleko publikoa ere oso ona da. Behin Kolonbiara joan ginen Payasos En Rebeldia egitasmoarekin, eta hango publikoarekin izandako esperientzia oso bestelakoa izan zen: diru askorik ez zegoen toki-tokietara joan ginen eta beste modu batean balioesten zuten gure lana, oso eskertuta azaldu ziren.

P: Familientzako ikuskizuna da gurea. Egia esan, umeekin zein nagusiekin lan egitea gustatzen zaigu: adin-talde bakoitzak zati batzuk beste batzuk baino hobeto ulertzen ditu, esaterako, helduek zati bisualagoak eta umeek kolpeak, eta horrek joko ematen digu.

Beste konpainia batzuekin ere egiten duzue lan, adibidez, Cair Circo, Ma-las Compañías eta Pistracatro taldeekin.

P: Gustatzen zaigu beste konpainia batzuekin lan egitea, haietako kideengandik ikasten dugulako eta erabili ohi ez ditugun egiteko moduak baliatzen ditugulako.

A: Gainera, bikotekideak garenez, dena egiten dugu elkarrekin: bizi, entrenatu, lan egin... eta batzuetan kanpoko jendearekin aritzea ondo etortzen zaigu. Era berean, lan gutxiago egin behar da, ze langile moduan aritzen zara, besteentzat; norbere konpainia denean –Cair Circo ere gurea da, baina beste lagun batzuekin batera sortutakoa–, lan handiagoa dago. Dena dela, erraza da gurekin taldean lan egitea eta arazo barik moldatzen gara.

“Gustatzen zaigu beste konpainia batzuekin lan egitea, haietako kideengandik ikasten dugulako”

Bestetik, egia da taldean ibiltzen zarenean gehiago eman behar duzula, eta ikasi.

Nolako da kaleko zirkutik bizi izatea?

P: Ziurgabetasuna egon arren, hura gero eta txikiagoa da. Orain dela 11 urte ez gintuen inork ezagutzen eta ikuskizun bakarra genuen. Hortaz, geuk egin behar genuen dena: udaletara deitu, ikuskizuna saldu, webgunea... Gero errazago izaten da, batez ere ikuskizun bat baino gehiago baduzu eta beste konpainia batzuekin lan egiten baduzu. Izan ere, pixkanaka ezagunago bihurtuz joaten zara eta zure lana leku gehiagotara zabaltzeko aukera etortzen da. Nolanahi ere, ziurgabetasuna beti dago, jakina.

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



IRAILEKO IKASTAROAK

- B1-B2-C1 (90 eskola-ordu)
Irailaren 1etik 24ra
- B2 eta C1(30 eskola-ordu)*
Irailaren 13tik 24ra
- *Langabetuentzat matrikulotan prezio bereziak.
- Mintzamena (30 eskola-ordu)
Irailaren 13tik 24ra



MATRIKULA ZABALIK 2021-2022 ikasterterako

- Irailaren 1etik 24ra
- HABEren maila guztiak
- A1-A2-B1-B2-C1 eta C2
- Modulazio eskaintza zabala (4-6-7,5-10 ordu)
- Trinkoak eta Autoikaskuntza

Prezio bereziak: Txorierrikoentzat,
langabetuentzat, erretiratuentzat



MATRIKULA ZABALIK INFORMAZITEZ

944 540 062 // euskaltegia@txorierrin.eus



A: Hilaren amaieran ez dugu soldata finkorik eta ez dakigu opor ordainduak zer diren, ezta aparteko paga zer den ere. Are gehiago, martxoa dela ez dakigu urtea pasatzeko behar beste dirurik izango dugun. Ikuskizunez gainera, tailerren bat ere eman dugu inoiz, baina lagunek eskatu digutelako izan da. Oporretara noiz joan ahalko garen ere ez dakigu, emanaldiei ezin zaielako ezetz esan.

“Martxoa dela ez dakigu urtea pasatzeko behar beste dirurik izango dugun”

Zelako eragina izan du pandemiak zuen lanean?

A: Hasieran beldur ginen, ez genekielako aurrerago lanik izango genuen. Halere, jaietarako aurrekontu asko gastatu ezin izan zirenez, ikuskizun txiki asko antolatu dira eta nahiko lan izan dugu. Antzokietan ibiltzen direnak okerrago pasatzen dabilta.

P: Osasun-neurriek eta edukierak mugatzeak eragina izan dute ikuskizunetan: saio hotzagoak dira orain, publikoarekiko hurbiltasuna galdu delako. Hala ere, lortu dugu ikuskizunen mamiari eustea.

“Jaietarako aurrekontua gastatu ezin denez, ikuskizun txiki asko antolatu dira eta nahiko lan izan dugu”

“Saioak orain hotzagoak diren arren, lortu dugu ikuskizunen mamiari eustea”

Nola datoz hurrengo hilak?

A: Udan-eta emanaldiak ditugu, baina hasi da entzuten datorren urtean krisia etorriko dela eta aurrekontu publikoak apur bat murriztuko direla.

Amaitzeko, zer egiten dute galego batek eta gipuzkoar batek Larrabetzun?

P: Santiago de Compostelan 10 urte eman ondoren, herri txiki batean bizi izateko gogoia genuen, eta Euskal Herrira etortzeko gogoia. Antzerki-giroa zegoen inguru bat nahiago genuen eta hori Bilbo zen; gainera, jadanik bertako konpainia batekin –Malas Compañías– lan egiten genuen. Etxebizitza topatzen hasi, eta Larrabetzura etortzeko aukera agertu zen. Ezaguneri galdetu genien eta oso iritzi onak eman zizkiguten. Gipuzkoara emanaldi batera gindoazela aprobetxatu genuen herria ezagutzeko eta asko gustatu zitzaigun. Eskolara deitu genuen alaba eskolatu ahal

genuen galdetzeko eta erraztasunak baino ez zizkiguten eman; hortaz, bertan gaude. Gainera, ni euskara ikasten nabil.

A: Hamazortzi urte bete nituenean kanpora joan nintzen ikastera eta, Iruñeko eskolan emandako denboraldia izan ezik, 20 bat urte eman ditut Euskal Herritik kanpo. Alaba jaio zenean itzultzeko gogoia etorri zitzaidan, hizkuntzagatik eta hezteko moduagatik. Niri kostatzen zait toki batean luzaro gelditzea, baina oso gustura gaude hemen. Hain gustura, ezen amona izaten naizenean ere ikusten baitut nire burua Larrabetzun (kar-kar).

Ibilbidea



Ariñe Azkuek aireko teknikak, dantza, akrobazia eta clown ikasi ditu penintsulan, Italian eta Argentinan. Kaleko antzerkiko hainbat jaialditan eta zirkoko emanaldietan hartu dute parte, eta, besteak beste, Zirko Oreka, Zirika Zirkus eta Panpinpox konpainiekin egin du lan. Aire-tekniken irakaslea izan da Oreka eskolan. Oscar Paezek, bestalde, clown, akroportesa, dantza eta malabarismoa ikasi ditu penintsulan eta Argentinan, eta zenbait konpainiatan parte hartu, La Bandan eta Zirko Orekan kasu. Baita kaleko antzerkiko jaialditan eta zirku-galetan ere. Jarduera Fisikoan eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua, akrobazia- eta malabarismo-irakaslea izan da Iruñeko Unibertsitate Publikoan.

Zirko Txoskok lau ikuskizun ditu: *Indartsuak*, *Txosko airean*, *Zerua arriskuan jartzea* eta *Oh-Pera!*, euren azken lana dena. Abuztuan emanaldia egingo dute Larrabetzun Malas Compañías taldearekin.

OLGA LOROÑO

TXEPETXA AEK EUSKALTEGIA (DERIO)

Kontatu digunez, hasieran beldur ziren ikasturtea zelan joango zen. "Baina neurriak eta protokoloak beteta, ikasturtea gorabehera handi barik joan da eta egiaz-tatu dugu euskaltegia leku segurua dela". Garbiketa-eta segurtasun-arloetan hartu beharreko neurri zorrotzek hasieran lan gehiago ekarri arren, lanaren parte bihurtu dira azkenean. Era berean, kezkatuta egon ziren jendea euskaltegira hurbiltzera animatuko ote zen eta egoerak ikasle batzuen ikas-prozesuan etenaldirik ekarriko ote zuen. "Halere, gehienek kasuan ez da horrela izan. Bestalde, jendea hurbildu da euskaltegira, baina edukierak direla-eta itxarote-zerrendak izan ditugu eta, beste aukera batzuk topatzen saiatu arren, batzuek ezin izan dute euskaltegian izena eman. Nolanahi ere autoikaskuntzaren eta onlineko ikastaroen eskaerak gora egin du". Bere ustez, hurrengo ikasturtea ildo beretik joango da, "behintzat hasieran". Dena dela, joan den ikasturtean izandako esperientziak baliatuta, pentsatzen du orain prestatuago daudela ikasturte berriari heltzeko. "Badakigu zer etorri daitekeen, baina espero dezagun larriagoa ez izatea".



JON ARGJARRO

RADIO TAXI FEMADE (TXORIERRI)

Mugikortasun-murrizketek min handia ekarri diote taxiaren sektoreari. "Konfinamenduan ez genuen hiru hilabetean ezer fakturatu, eta orokorrean lanak % 80 egin du behera aireportuan zein Txorierrin. Orain, udako oporrak direla-eta, mugimendu apur bat handiagoa dago aireportuan, baina, nire ustez, irailaren amaieran behera egingo du berriro: begiratu pandemiaren azken egunetako joera... Gainera, orain partikular gehiago etortzen dira bidaiarien bila. Izan liteke bidaiari gehienak gazteak direlako: gurasoak etortzen dira haien bila". Taxilarien euskal federazioaren bidez erakundeekin harremanetan ipini diren arren, sektoreak ez du zuzeneko laguntzarik. "Aurrera egin behar da SEPEK emandakoarekin, udalek emandako dirulaguntzarekin, etorri ahal diren laguntzekin... Txarto pasatzen ari gara. Espero dezagun apur bat hobetzea, baina ez dakit noiz, nola... ezta pandemiaren aurreko egoerara itzuliko garen ere". Azpimarratu du taxia garraio publikorik seguruena dela. "Maskara derrigorrean jantzi behar da, eta gel hidroalkoholikoa dugu. Autoa ere zorrotz garbitzen dugu".



Balio etikoetan oinarritutako ipuin-lehiaketa egin da Txorierriko Institutuan. Lehiaketa antolatzea otu zitzaien filosofia eta balio etikoak irakasten dituzten irakasleei, hurrengo hauek jorratzeko: sormena, enpatia, autoestimua, introspekzioa eta idazmena. Lehiaketa DBHko lehenengo eta hirugarren mailatan egin da, lehenengo mailan bullyinga eta jazarpen-motak lantzen direlako, eta hirugarren mailan LGTBQ+ jorratzen delako. Gelako jarduera izan da eta ikasleek hiru eskola-saio izan dituzte istorioak pentsatzeko eta idazteko. Irabazleek diplomak eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleek egindako poltsak jaso dituzte saritzat. Uztailako alean eta hurrengoetan irabazleen ipuinak argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian

Eta zu? Zein generorekin identifikatzen zara?

ALAITZ FERNANDEZ | DBHko 3. mailako ikaslea



Istorio bat kontatuko dut. Bazen behin neska bat... ez, ez horrela ez. Berriro hasiko naiz. Bazen behin mutil bat... Horrela ere ez... Ez dakit; bueno bai, badakit.

Bazen behin bere generoa zein zen ez zein pertsona bat. Baina bere generoa Interneteko lagun berriei beti esan behar zien. Bideo-jokoetan jolasteko eta haiekin berrikerian aritzeko Discord izeneko aplikazioaren bidez.

Lagunek, beti pentsatzen zuten 11 urteko mutil bat zela bere ahotsagatik, eta oraindino ahotsa ez zitzaiola aldatu. Lagun horiek ez zekitena zen XY kromosomak zituela, eta behin eta berriro ez-binario zela azaltzeaz nekatuta zegoen. Hau da... Berriro azaldu behar dut? Bueno beharrezkoa bada egin beharko da ezta? Ea, ez-binario jaiotzean esleitutako generoarekin identifikatzen ez dena da, baina ez da ere beste generoarekin, baizik eta ez dela inongo generoarekin identifikatzen.

Kodigo binario deitzen zioten eta 0010100101010 esaten hasten ziren, bromatzat, baina berari ez zitzaion axola, berak ere bromatzat hartzen zuelako.

Hasieran kontatzea kostatzen zitzaion... Bueno oraindik kostatzen zait, ez pentsa. Ez du beti esaten beharrezkoa ez bada, galdetzen badiote, neska edo mutila dela esaten dutenean, hor bai azaltzen dut. Baina zergatik azaldu behar dut beti nire burua nola ikusten-sentitzen dudana?

Orain dudak ditu bere generoarekin, ez daki zer den. Neska da? Mutila da? Ez-binario da? Zer naiz? Ez dakit.

Uste dut neska ez naizela baina beste batzuetan baietz pentsatzen dut, uste dudanean neska ez naizela, ez-binario naizela esaten dut baina ez dakit zein genero naizen. Genero arina ez naiz eta mutila ere ez, imajinatu zure generoarekin ez zaudela ados, ba... pixka bat gogorra da ez dakidalako nola aurkeztu neure burua internetetik lagun berriak egiten ditu-

danean, eta beldur naiz onartuko ez nautela pentsatzean.

2021. urtean bizi gara, eta beraz, onartzen eta ulertzen da bi genero baino gehiago dau-dela, baina oraindik asko landu behar dugu pertsona hauekiko sozialki zor diegun errespetua.

Orain dela gutxi gay edo lesbiana izatea onartzen hasi ziren baina transexualak agertu ziren eta... berria zenez jendea ez zekien zer pentsatu horren inguruan, eta orain, berdina gertatzen ari da bi genero baino gehiago dau-dela esatean.

Gaur egun LGTB komunitateko kide izatea legez kanpoko da 72 herrialdetan. Tristeia da gutxi-asko onartzen dela esatea XXI. mendean.

Gutxi gorabehera hirurogei herrialdetan LGBTI komunitatearen parte izatea kriminalizatua eta zigortua dago. Hamairu herrialdetan, zigorra heriotza da.

Errealitatea den ipuin bat da hau eta horre-gatik bukatzeko lgbt izatea nolabait zigortuta dagoen lekuetako zerrenda bat jarriko dizuet.

Amerika

Antigua eta Barbuda, Barbados, Dominica, Grenada, Guyana, Jamaika, Saint Kitts eta Nevis,

Saint Vincent eta Grenadinak, Saint Lucia, Trinidad eta Tobago.

Afrika

Angola, Aljeria, Botswana, Burundi, Kamerun, Komoreak, Eritrea, Etiopia, Gambia, Ghana, Guinea, Kenya, Liberia, Libia, Malawi, Maurizio, Mauritania, Maroko, Namibia, Nigeria, Senegal, Sierra Leona, Somalia, Swazilandia, Sudan, Hego Sudan, Tanzania, Togo, Tunisia, Uganda, Zambia, Zimbabwe

Asia

Afganistan, Saudi Arabia, Bangladesh, Bhutan, Brunei Darussalam, Arabiar Emirri Batuak, Gaza, India, Indonesia, Irak, Iran, Kuwait, Libano, Malaysia, Maldives, Myanmar, Oman, Pakistan, Qatar, Singapur, Siria, Sri Lanka, Turkmenistan, Uzbekistan, Yemen

Ozeania

Cook uharteak, Salomon uharteak, Kiribati, Papua Ginea Berria, Samoa, Tonga, Tuvalu

Ipuina edo istorio erreala da?





ZURE NEURRIRA



BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

“Zaletasun hutsagatik elkartzen gara musika jotzeko”

Ohiko punk taldea da Santi Matxete y los Pielas Rojas, 80ko hamarkadako filosofiari eta musika ulertzeko moduari estu lotuta dagoena. Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean en-saiatzen dute eta taldekideak erabat eginda daude hango girora. Horrela, bada, oso harreran berezia dute herritarrekin. Taldearen nondik norakoak izan ditugu musikariek hizpide, eta, halaber, azaldu digute garbiguneko punka, eurek egiten dutena, zer den.

t: Itxaso Marina Ondarroa / Iratxe Pirla

“Punka da zikina, zaborra balitz legez... Horregatik esaten dugu garbiguneko punka egiten dugula: diskoa garbiguneko atean saldu dizugu, entzun duzu, eta gustatu ez bazaizu, bota ahal duzu; ez dago arazorik”, azaldu digu Santi Lopez taldearen *alma materrak*. Bere esanetan, ez zaie gustatzen beste talde batzuen abestiak jotzea. “Originaltasunak norbera izatea dakar eta horregatik konposatu behar ditu nork bere abestiak”. Eta origi-

naltasuna hain zuzen da nagusi Santik berak egiten dituen abestietan. Disko bat dute kalean, *Grindar la vida* – bizitza ahalik eta gehien disfrutatu-, eta, besteak beste, “Morcillas de Arrieta” eta “El blues del Bizkaibus” abesti ezagunak topatu ahal ditugu diskoan. “Beste disko bat ateratzea pentsatzen gabiltza, baina, egia esan, nahiko zahar gaude: zaletasun hutsagatik elkartzen gara musika jotzeko”.

Nolanahi ere, abesti berriak dituzte eta seguruenen da bigarren disko hori laster kaleratzea. “Egunero 10 bat kanta

konposatzen ditut, eta horietatik bederatzia botatzen ditut garbigunera. Abestien zatiak hartzen ditut, itsatsi, berriro moztu... Eta ordenagailu barik, e! (kar-kar). Kanta berrietako batzuk dira “El cura de Larrabetzu a la hamburguesa le echa ketchup” eta “Tu mejor opción”. Dena dela, ez dugu proiektu handi bat egiteko gogorik, ateratzen dena baizik. Izan ere, ez dugu ezta kamisetarik ere”. “Santi artista handia da. Gaur abesti bat ekar diezaguke, baina abesti hori ezberdina izango da bihar: goitik behera aldatzen du. In-



“Egunero 10 bat kanta konposatzen ditut, eta haietatik bederatzi botatzen ditut garbigunera”

“Abesti surrealistikak dira, baina helburua da batez ere jendeari barre eragitea”

teres artistiko handia du eta bere jarrera horrek arreta ematen dit. *Showmana* ere bada”, esan du Asierrek. “Asko gustatzen zait txantxatan ibiltzea eta gertatzen zaidana hartzen dut inspirazio-iturri”, jarraitu du Santik. “Beti nabil buruari bueltaka, geldiezina naiz. Nire neuronek elkarren kontra egiten dute talka eta zentzugabeena islatzen dut abestietan, esaterako, “Una rana en el SPA”, “El burro inteligente” edo “Emigrante universal”. Bueno, jendea eta ni neu kontzientziatzeko kantak ere egiten ditut, “Recoge las cacas de tu perro” kasu”. “Abesti surrealistikak dira, baina helburua da batez ere jendeari barre eragitea”, gehitu du Asierrek.

Santi Matxete y los Pielas Rojas duela sei urte inguru osatu zen. “Egiaz, Tripustelak taldearen jarraipena da, Santiren aurreko taldea izan zena. Lehendik ezagutzen genuen elkar, kontzertuetan-eta elkarrekin kointziditu genuelako”, kontatu digu Mikelek. Asier azkena izan da taldean sartzen duela urte bi inguru. Entseguak Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean egiten dituzte 15 egunetik behin. “Gaztetxeari eskertu nahi diogu hor ensaiatzen uztea, izan ere, nire herrian, Mungian betoa jarri didate”, aipatu digu Santik. “Mungian estuegi hartzen dute politika, eta Larrabetzun, berriz, jendea oso jatorra da eta badakite talde dibertigarri bat zer den: ez dute politikan pentsatu, baizik eta kultura-ekintza egiten zabiltzala. Azken batean, nire musika adin-tarte guztientzat da... Inoiz gertatu zait gurasoak tragoren bat edaten zebiltzan bitartean seme-alabak kontzertuan egon eta Bob Esponjarena egin behar izatea”. Urte bi daramatzate Larrabetzuko gaztetxean ensaiatzen, “luxua da eta poz-pozik gauden”. Duela aste batzuk ustekabeko publi-

koa izan zuten. “Frantziako eta Belgikako hiru erromesek jo zuten atea eta galdetu ziguten ea sartzerik zuten... Flipatu egin zuten!”.

Oxigenoa

Agertokira milaka aldiz igo dira eta datozen kontzertuetako bat irailan egingo dute Txorierriko Baserri Antzokian, ziurrenik. “Egia esan, ez dut kontzerturik egiteko gogo handirik: oxigenoa behar dut. Kontzertu asko egin ditugu eta nekatuta nago... Gainera askotan ez dute ordaintzen... Nahiago dut ortuan ahuakateekin egon kontzertuak egin baino... Inportantea da udalek edota musika-aretoek norberaren lepotik barre ez egitea eta kontzertuaren truke ordaintzea. Izan ere, guk ere jaten dugu, instrumentuak furgonetan sartu behar ditugu, handik atera, muntatu, desmuntatu, gasolioa ordaindu... Guk ez dugu musikatik bizi nahi, baina gutxienez ez dezatela gure lepotik barre egin!”. Gainera, Santik azpimarratu du jarraitzaileak munduko hainbat txokotan dituztela. “Esaterako, Argentinako batzuk Larrabetzura etorri ziren espresuki indabak jatera, eta Arrieta

“Ez dugu musikatik bizi nahi, baina gutxienez ez dezatela gure lepotik barre egin!”

ere gure musikari esker ezagutzen dute beste batzuek. Hori ere kontuan hartzea da, politika alde batera utzita, musika ere baliagarria delako herriak, jendea, kultura... sustatzeko”.

Taldeakideak ondo pasatzeko elkarrekin dira, elkarrekin musika jotzeko ekaritzen dien atseginatik. Asier taldekidearik gazteena da, baina Santik eta Mikelek 80ko hamarkadako eta 90eko hamarkada hasierako punka bizi zuten. “Ospetsuez gainera, talde asko ginen eta Andoni Fernandezek *Mierda de Bizkaia* liburuan batu gaitu. Oso garai ona zen, baina galduta dago, belaunaldiak aldatuz joaten direlako, musikaz eta estiloz aldatuz... Eta garai hartako guztia han geratu zen, punk britainiarraren moduan”. Beraz, nostalgiaz jotzen dutela atera liteke ondorio.



Taldeakideak

Santi Lopez (gitarra-jolea eta ahotsa) da Santi Matxete. Mungiakoa da eta lehen eraikuntzan egiten zuen lan. “Orain ahuakateak landatzen ditut eta antigoaleko gauzekin ere banabil. Halaber, Aranzadiko boluntarioa naiz eta gudariak topatzen laguntzen dut”. Mikel Lopez (baxu-jolea) eta Asier del Campo (bateria-jolea) dira Los Pielas Rojas. Mikel Larrondon bizi da, baina Deriokoa da eta hango eskolan hain zuzen dabil atezain. Azkenik, Asier Leioakoa da eta delineatzaile egiten du lan.

Aiora Gerekiz, etorkizun handiko amazona txikia

Zazpi urte ditu Aiora Gerekiz Etxeandia larrabetzuarrak eta jadanik erakutsi du trebetasun handia duela poneyen gainean. Horrela, bada, Infanta Elena trofeoa eta Espainiako Kopa irabazi ditu aurten. Hala ere, Eider Etxeandia bere amak argi utzi du hipika txapelketetatik eta lorpenetatik haratago doala eta azpimarratu du umearen eta bere poneyaren arteko lotura berezia.

“Aiora zazpi urteko umea da eta berarentzat oso dibertigarria da poneyaren gainean ibiltzea: bere helburu bakarra ez da lehian sartzea; ondo pasatu ere egiten du”, azaldu digu Etxeandiak. “Liluratuta dago bere poneyarekin: entrenamendurik ez duenean, hura ikustera joan nahi du, berarekin egote hutsagatik; maite du. Aurotoa ikusten duenean, animalia ere Aiora bila hasten da... Irrintzi egiten dio. Kontua ez da bakarrik animalia gainean ibiltzea eta lehian sartzea; poneya zaindu behar da, mimatu, berarekin egon, larratzera atera, garbitu, orraztu...”

“Poneya zaindu behar da, mimatu, berarekin egon, larratzera atera, garbitu, orraztu...”

Amazona gaztetxoari amarengandik datorkio zaldienganako zaletasuna. “Guk zaldiak izan ditugu beti etxean eta ni ere oso gaztetxo nintzela hasi nintzen hipikan. Aiora ere hipikara hurbildu da, baina ez lehiatzeko, baizik eta zaldien mundua eta animalia bat izateak dakarren erantzukizuna ezagutzeko. Txapelketetan parte hartu arren, zazpi urteko neskatoa da eta ondo pasatzeko ibiltzen da poneyaren gainean; batzuetan irabazten du, eta beste batzuetan, galdu. Horrezaz gainera, lagunekin egotea gustuko du, hondartzara edota igerilekuetara joan, futbola ikusi...”

Larrabetzuko amazona txikia Lezaman entrenatzen da, Aretxalde hipikan, eta Nafarroako federazioan dago, “bertan 10 urtetik beherako umeak eskola-kirolean aritzen direlako”. Astelehenetan izan ezik, bi orduko entrenamendu-saioa egiten du egunero. Bi poneyarekin entrenatzen da,

“Lehiatu arren, zazpi urteko neskatoa da eta ondo pasatzeko ibiltzen da poneyaren gainean”

Ucladerekin –bere poneya– eta Titanekin –zalditegikoek utzitakoa–. “Era askotariko entrenamenduak dira: salto egin, potentzia eta erresistentzia landu... baita jolasak egin eta pasieran ibili ere. Bestalde, txapelketen aurreko saioak biziagoak dira, baina berak badaki eta guk beti hartuko dugu bere iritzia kontuan: nahi duen arte entrenatuko eta lehiatuko da”. Nolanahi ere, gaztetxoak ordu gehiago ematen ditu zalditegian. “Entrenamendua hasi baino lehenago ailegatu behar da, ekipamenduak hartu, poneya prestatu, garbitu... eta entrenamendu ostean, ekipamendua kendu eta garbitu, animalia larratzera eramane... Beste poneyarekin gauza bera

“Guk beti hartuko dugu bere iritzia kontuan: nahi duen arte entrenatuko eta lehiatuko da”

egin behar du. Izan ere, lotura estua sortu behar da zaldunaren eta animaliairenean”.

Txapelduna

Gerekiz hiru urterekin hasi zen poneyaren gainean ibiltzen, eta iaz, txapelketetan parte hartzen. Maiatzean, Infanta Elena trofeoa irabazi zuen A2 kategorian, eta ekainean, Espainiako Kopa, A kategorian. Neskatoak ibilbide ikusgarria egin zuen azken proba horretan, eta horren adierazlea izan zen publikoa zutik ipini izana. “Ikaragarria izen zen. Hasierako urduritasuna gaudituta, Aiorak txapelketa bikaina egin zuen eta aurretik egindako lan gogorra erakutsi”.





Espainiako Txapelketa ere egin zen Espainiako Koparekin batera, eta Gerekizak lehiaketa bietan hartu zuen parte, bakoitzean poney batekin; hala ere, akats txiki batengatik Espainiako Txapelketatik kanpo gelditu zen. "Infanta Elena trofeoa irabazi ondoren, gogotsu geunden, baina bagenekien zaila izango zela, proba bakoitzean 35 zaldun ibili zirelako, eta oso onak, gainera. Nolanahi ere, alabarengan konfiantza handia dugu eta beste behin ere onerako harritu gaitu. Egia esan, urte zoragarria izaten ari da garaipenei dagokienez, baina badakigu gorabeherak izan ahal direla eta zortea ere inportantea dela". Larrabetzukoa txapelketa bietako zaldunik gazteena izan zen. Abenduan Pony Club Trofeoan parte hartzeko asmoa du.

- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Ne-apaindegia
M^a Antonia Llodio ^{TXOP}

Txorierriko etorbidea, 6 **48170 ZAMUDIO (Bizkaia)**
Tel.: 94 452 02 70

aikor!
Txorierriko aldizkaria

Zure lekua hemen!

Iragarkia gurean ipintzeko:
688 782 642
publi@aikor.com

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Goitoltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-aldizarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO
TEL. 94 424 38 34

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Txorierrikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

Zu Argazkilari

Zure herriko txoririk ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hilerro argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.



Presumida Bravo (Sondika)



Irati Lopez (Larrabetzu)



Endika Garcia (Larrabetzu)



Irene Diaz (Sondika)

Jende txiki asko mundua aldatzen



t: Katalin Alciturri, Adsis Fundazioaren hezitzailea

Sei urte inguru dira, Balioetan Hez-teko Programaren bitartez, Adsis Bizkaia Fundazioa hasi zela Emaus Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean programarekin elkarlanean. Egungo osasun-egoera gorabehera, programa bien arduradunok pentsatu genuen aurtan ere oso interesgarria eta aberasgarria izango zela esperientzia hau partekatzen jarraitzea. Esperientzia polita izan da, zeren 16 urtetik eta 19 urtera bitarteko gazteek aste bat partekatu ahal izan baitute Bitartean programaren partaideekin. Horretarako, bakoitzaren egoera pertsonala alde batera utzi, eta garatu beharreko jardueretan ipini genuen arreta.

Aurtengoa urte berritzailea eta desberdina izan da, jarduera gehienak Derion ireki berri den eguneko zentroan egin

ditugulako. Emauseko zenbait parte-hartzaileekin batera, sei gaztek oihalezko poltsa berrerabilgarrien tailerra egin dute, eta hiru irratsaio. Gainera, egitasmo solidario honen haritik sortutako esperientziak partekatu dituzte. Nabarmenezkoa da Bitartean programaren pertsona batzuekin egin genuen testigantza-tailerra: bihotza ireki ziguten, eta euren bizitza kontatu, gazteak kontzientziatzeko zer gerta daitekeen gure bizitzaren momenturen batean

*“Norberaren bizitza
kontatzea ez da
erraza, eta urterik urte
eskuzabaltasun handiz
kontatzen dizkigute
euren bizipenak”*

substantziaren bat kontsumitzen badugu. Oso tailer beharrezkoa da, egoera horretan egon diren pertsoneri entzutea baino hoberik ez dagoelako. Esker oneko hitzak baino ez ditugu, izan ere, badakigu norberaren bizitza kontatzea ez dela erraza, eta urterik urte eskuzabaltasun handiz kontatzen dizkigute euren bizipenak.

Bestalde, bi egunetan Gamizeko zentrorra joan gara jantokia margotzera eta duela urte bi hasitako dekorazioa amaitzera. Kolore apur bat eman diogu lekuari, alaitasun handiagoa. Azken batean, gazteek poza eta ilusioa adierazten dute, eta margotutako horma-irudien bidez horixe helarazi nahi diegu handik pasatzen diren pertsona guztiei.

Jarduerak alde batera utzita, talde bien artean sortzen diren harremana eta lotura dira garrantzitsuenak. Adin-tarte handia dago haien artean eta oso bizibaldintza ezberdinak dituzte; hala ere, elkarrekin emandako astean helburu bera izan dute: gozatzea. Eta gozatu dugu, eta batak bestearengandik ikasi. Batetik, gazteek alaitasuna eta ilusioa eraman dituzte Bitartean programara, eta bestetik, nagusiek jakin izan dute gazteei nola adierazi, aukeratzen duten bidearen arabera, bizitzak zer ekar diezaikeen.

Beso zabalik

Beste urte batean ere gazteak esperientzia errepikatzeko gogoarekin azaldu dira, norbaitengatik zerbait ona egin duten sentazioarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu Bitartean programa osatzen duten pertsona guztiei, beti beso zabalik hartzen gaituztelako eta garrantzia ematen dietelako gazteei eta horiek mundu justuagoa eta solidarioagoa eraikitzeke duten eginkizunari. Baina batez ere Juan bihotzez eskertu nahi diogu bere lana. Juan Emauseko partaidea izan zen eta gazteekin batera boluntario ibili da egitasmo solidario honetan. Orogen gainetik, Juan artista da eta bere lan barik egindako horma-irudiak ez ziratekeen hain ederrak izango.

Nahiago genuke mundua hobetzeko gogoak datorren urtean berriro aurkituko bagintu. Egindako horma-irudian irakur daitekeenez, “jende txiki askok gauza txikiak eginez mundua alda dezake”.

Laharra



T: Txiribita

Laharra, *Rubus fruticosus*, berez hazten da basoetan, larreetan, bide-ertzetan eta ibai-ertzetan. Maiatzean loratzen da eta loraketak udara arte irauten du, baina, klimaren arabera, abuztura arte edo gehiago iraun dezake. Hostoak eta kimu gazteak udaberrian batzen dira, eta masustak, helduta daudenean.

Ezaugarri diuretikoak, elikagarriak eta arazgarriak ditu eta anti-diarreiko eta anti-inflamatorio ezin hobea da. Idorgarria da, eta taninotan aberatsa. Katarroa kentzeko baliagarria da, eta orbaintzailea. Aho- eta ez-tarri-infekzioak osatzeko erabil dezakegu, baita handituta dauden edo odola darian hortzoiak sendatzeko. Aho-zaurietarako eta anginetarako ere bada egokia. Gargarak egiteko, prestakin hau egin dezakegu: ur litro bakoitzeko 40-60 gramo hosto eta kimu hartu, hiru minutuan egosi eta 10 minutuan utziko dugu jalkitzen. Bestalde, jarabea egiteko, masusta-kopuru eta azukre-kopuru berdina nahastuko ditugu eta ordu batzuetan egosiko dugu su motelean. Beharrezkoa bada, ura botako dugu. Prestakina iragaziko dugu, zukuia ondo atera, eta botilaratuko dugu. Umeen zein

helduen beherakoa kentzeko har daiteke, eta aho- eta birika-gaitzetarako. Hiruzpalau koilarakada handi hartu behar dira zenbait aldiz egunean.

Sukaldean

Masusta-marmelada ospetsuaz gainera, errezeta asko daude. Hurrengo lerroetan adibide bi ditugu.

Likorea: Uxual litro batean 350 g masusta heldu beratuko dugu hauekin batera: limoi bat (zatituta), bost iltze, kanela-zotz bat eta intxaur muskatu apur bat. Hilabeteetan izango dugu beretzen. Ondoren, gaza bat erabilia ondo iragaziko dugu eta, erabili baino lehen, leku fresko eta ilun batean utziko dugu jalkitzen beste hilabete batean.

Tea: 2/3 lahar-hosto eta 1/3 mugurdi-hosto (zatituak). Hostoak busti eta oihal batean ipiniko ditugu. Bizpahiru egunean gordeko ditugu. Ondoren, atera eta hostoak erabat sikatzen utziko ditugu. Potetan gordeko ditugu. Usaintsuak dira eta te txinatarraren ordez har daitezke.

Erabilera kosmetikoak

Larruazal pikortadunetarako etxeko lo-zioa: 25-30 g lahar hartu eta 10 minutuan

Belarrak eta landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak bada; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

egosiko dugu. Goizean eta arratsaldean erabiliko dugu aurpegian, zauriak azkarra-go orbaindu daitezten.

Ortuan

Txori txikien eta haragijaleek jazarritako animalia txikien babeslekua da. Bere adar arantzadunen azpian zuhaitz txikiak hazten dira, barazkijaleengandik salbu. Zuhaitz txiki horiek erabat handitu direnean, laharrak lekua uzten die eta leku berrietara zabaltzen da. Larreak bereizteko erabiltzen da.

Bitxikeriak

Euskarazko beste izen batzuk: nar, lar, elorri lar, lar xistako, lapar, gapar, kaparrarte, endratxa, kehela, tarta, asu, asuar, azuar, arantza, asu arantza, zearnarra, esilarraga, sasi eta berro.

Ap! edo txut! Makinista hilaren pedala

Ap! Ze hotz!
Txut! Ze bero!
Baina orain;
ez gero.

t: Juan Luis Goikoetxea

Ur hotza ukitukeran ap! esaten da, eta beroa bada txut! Epelagatik, oster, ez da holakorik esaten. Egia esan, epel biziz gero, ez gara helduko oso urrun. Gaur egun, sare sozialen eta eskufonoen eraginez, gazte eta ez hain gazte asko erdi bakartuta ikusten dira. Ezagun ditudan batzuk Instagrameko kide edo Whatsappeko partaide badiren arren, ez dute parterik hartzen auzoko jaiak antolatzen; ez herriko kultura ekintzetan; ezta plastikoa batzeko ahaleginetan ere. Badirudi mundu birtualean edo bizi direla. Baina mundu birtuala eta erreala ez datoz bat.

Gure lurretan ezin bizi gintezke epel, pasibo: edo ap! edo txut! Hurrean bizi direnek behar eta gura gaituzte inguruko zereginetan; Euskararen Herriak behar gaitu. Hara! Inoiz trenean joanik kabinara sartzeko aukerarik baduzu, bertako kontrolagailuen artean "makinistaren pedala" topatuko duzu. Tresna edo botoi hori da iragartzera emateko, ea inor gidatzen ari den, irten egin duelako edo konortea galdurik aurkitzen delako. Ez bada gidaririk edo gidari hori hil egin bada, pedala -makinista hilaren pedala deitua- inork ez sakatzean, larrialdietarako galga sartzen da indarrean, eta bultzia bat-batean gelditzen da trenbidean.

Josu Naberanek idatzi zuen *Berria* egunkarian, 2019ko urtarrilean, euskal sena aintzat hartuz, etxea, auzoa eta

komunitatea oinarrian direla jokatzeko dagokigula euskaldunoi. Beste era batera esanik, auzolanetan parte hartzea, talde lanetan. Zertarako? Irabazte asmorik bako ekintzetarako. Hasi eta ikusiko duzu, "Ekinaren indarra, ekinez neurtzen da-eta".

Makinista -herritarra- treneko pedala zapaldu barik badoa, lo dagoelako edo alferduta, edo niri bost axola pentsaturik,

herrietako dantza, abesbatza, euskara elkarteak galdu egingo dira, tren gertatu egingo da; erdararen aurrean begiak nahiz ahoa zabalik biziko gara. Hemen berezkorik ez dago, txomin-belarra edo saguzar-birusa izan ezik -eta berau zailantzan-. Gainera, nonon edo zeozertan nonor ez bagara, bezero, txerto-hartzaile, zenbaki huts, bihur gaitetzke.

Irakurle, eutsi pedalar! Ap! edo txut!



JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafila-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 662772016

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OK

OAKLAND
ENGLISH

**PELUCERIA
ESTETIKA**
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Etxeko sukaldaritza

Udako fruten panakota



t: Maite Lekerika / a: antojoentucocina.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 250 ml esne (osoa)
- 250 ml esnegain
- 50 g azukre
- 2 gelatina-orri (uretan beratuta)
- Banilla-azukre apur bat
- Laranja erdi baten ura
- 250 g fruta (nektarina, mertxika, gerezak...)

Esnea, esnegaina, azukrea eta banilla-azukrea berotuko ditugu. Irakiten hasten denean, gelatina gehituko dugu. Ondo nahastuko dugu. Nahasia lau kopatan edo ontzitan bananduko dugu. Hozten utziko dugu. Bestalde, frutaren erdia dadotan ebakiko dugu. Beste erdiari laranja-zukua botako diogu eta irabiatuko dugu, harik eta krematxo bat egiten dugun arte. Fruta-dadoak gehituko ditugu, eta panakotaren gainean bota.

Patata- eta ahuakate-entsalada



a: cocinacaserayfacil.net

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 patata ertain
- 2 tipulin
- 2 ahuakate
- 100 g perrexil fresko
- Sagar-ozpina
- Gatza
- Oliba-olioa

Prestetako era:

Patatak egosi, zuritu eta zatituko ditugu. Tipulina juliana eran txikituko dugu. Ahuakatea zurituko dugu, hezurra kenduko diogu eta xaflatan ebakiko dugu. Patatak, tipulina eta ahuakatea katilu batean ipiniko dugu, eta perrexila gehitu (txikitua). Gatz apur bat bota, olio eta ozpina. Osagaiak onduko ditugu, eta entsalada mahaira atera.

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behe - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainketa Beharrik
Logopedia
Podologia
Kiroprasajak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txandier estabakoa, 9 - Larja | Artea eta enkima | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

**ama
taberna 3**

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

**ZAMUDIO
Lotería Nacionala**

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com


tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Profeten iruzurra (Maiatz argitaletxea), Amaiur Epher
- Alta maite nuen (Maiatz argitaletxea), Pierre Mestrot
- Euri zitalari esker (Alberdania), Itxaro Borda
- Babel aurretik (Txalaparta), Joseba Gabilondo
- Epizentroa (Erein), Nerea Loiola Pikaza
- Basoan barna (Elkar), Ainara Azpiazu Aduriz
- Hizkuntza gogoan (Erein), Beatriz Fernandez Fernandez

LITERATURA: UMEAK

- Zuhara, Itsasoaren deia (Alberdania), Amaia Telleria
- Gurasoak tokatzen zaizkit (Erein), Yolanda Larreategui
- Ilezuri (Alberdania), Kris Etxabe
- Isadora Moon, Urtebetetzea (Mezulari), Harriet Muncaster

Sudokua

8		9	1					
	5				2			
						9		2
				2		7		
			6	4		5	1	
			5		7	2		6
5								
	7			9				
9		4					5	1

1	5	8	9	7	2	4	3	6
3	2	9	5	6	4	8	7	1
7	6	4	1	8	3	2	9	5
9	8	2	7	1	5	3	6	4
6	1	5	3	4	9	7	8	2
4	3	7	9	2	8	5	1	6
2	6	6	8	5	7	1	4	3
8	1	4	2	3	6	9	5	7
5	7	3	4	6	1	9	2	8

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

TURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Laja-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitil.com

Oporrak gurekin partekatu



Udako oporrak herrian ematen dituzula, atzerrian, Euskal Herrian, etxean, kostaldean, mendian, herriko igerilekuetan..., bidali argazkiak aikorxori@aikor.com helbide elektronikora eta partekatu txorierritarrokin. Argazkiak paperezko aldizkarian eta webgunean argitaratuko ditugu irailean.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

GAMINIZ JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai leagutu Facebook-en

elekma
LIRAKTZEAREN BAI OINTUN ETATRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TIKORAK

Lohenergo marrik • Preziarik onenak:
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarriari etabidea. 25-3.N • 48180 Iruy
T: 944 539 232
www.elekma.es

**Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea. 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

**TABERNA
GAZTEDI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitetz berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).



euskara praktikoa

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1

HABEk homologatutako euskaltegia
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Herrian bertan ikasteko aukera

Autoikaskuntza

Online ikastaroak

Matrikula zabalik irailaren 30era arte

Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 | 607 59 87 94

txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA
HABE

TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

LARRABETZUKO
UDALA